

GAIXOTASUN MENTALA DUTEN PERTSONAK AHALDUNTZEN, ENPLEGU-SUSTAPENAREN BIDEZ



Fedeafes

Buru osasuneko
arazoa duten pertsona
eta senide elkarteen
Euskadiko federazioa

Federación de Euskadi
de asociaciones de
familiares y personas con
problemas de salud mental

Fedeafesen elkarteekin
lankidetzan egindako azterlana:



agifés



asafés



asasam



avifés

Babeslea:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES

FEDEAFESek eta bere barne dauden Agifes, Asafes, Asasam eta Avifes elkarteek eginiko azterlana.
EDE Fundazioarekin laguntza teknikoarekin.
2016an egina.

Buru Gaixotasuna duten Pertsona eta Senide Elkarten Euskadiko Federazioa (FEDEAFES)

Tres Cruces 14, behea eskubitara · Arza industrialdea · 01400 Laudio - LLodio (Araba)
www.fedeafes.org · fedeafes@fedeafes.org

Depósito Legal: BI-02717-2019



Fedeafes

Buru gaixotasuna
duten pertsona
eta senide elkarten
Euskadiko federazioa

Federación de Euskadi
de asociaciones de
familiares y personas
con enfermedad mental

Erabilera ez komertziala (by-nc): Eduki honetatik abiatuz beste lan batzuk sortzeko aukera dago, beti ere erabilera komertzialik ez badute. Jatorrizko txostena ere ezin da erabili helburu komertzialekin.

AURKEZPENA	3
1. ESPARRU TEORIKOA	4
1.1. GAIXOTASUN MENTALA DUTEN PERTSONEN DEFINIZIOA ETA EZAUGARRIAK	4
1.2. DESGAITASUNA ETA LANERATZEA	6
1.3. DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN LANERATZEAN ERAGINA DUTEN ARAUDI NAGUSIAK	7
2. METODOLOGIA	9
2.1. HELBURUAK	9
2.2. LAN-PROZESUA	10
2.3. TEKNIKAK	11
2.4. AZTERGAIA	13
2.5. LAGINA	13
2.6. ANALISIA	14
3. GAIXOTASUN MENTALA DUTEN PERTSONENTZAT EAE-N DAUDEN ENPLEGU-BALIABIDEEN MAPA	14
4. KONTSULTAREN EMAITZA NAGUSIAK	21
4.1. KONTSULTAREN EMAITZA NAGUSIAK	21
4.2. LANARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA ORIENTAZIOA	22
4.3. PRESTAKUNTZA-BALIABIDEAK	23
4.4. LANBIDE-BALIABIDEAK	25
4.5. ENPLEGU BABESTUA	30
4.6. ENPLEGU LAGUNDUA	36
5. ARRAKASTA-FAKTOREAK EDO - GAKOAK, GAIXOTASUN MENTALA DUTEN PERTSONAK LANERATZEARI DAGOKIONEZ	41
6. GAIXOTASUN MENTALA DUTEN PERTSONEN KOLEKTIBORAKO LANERATZE-BALIABIDEEN ESKAINTZA HOBETZEKO ERRONKA NAGUSIAK	41
7. BIBLIOGRAFIA	46
I.ERANSKINA:	47
A) GAIXOTASUN MENTALA DUTEN PERTSONENTZAKO BALIABIDEEN MAPAN JASOTAKO ERAKUNDEEN FITXAK	47
B) DESGAITASUNEAN ESPEZIALIZATUTAKO ERAKUNDEAK	52
C) GIZARTE-BAZTERKERIAREN ESPARRUAN DIHARDUTEN ERAKUNDEAK	68
II.ERANSKINA: GUTUNA ETA GALDETEGIAK –INFORMAZIOA BILTZEKO FITXAK	81

AURKEZPENA

Desgaitasuna duten pertsonen oztipo handiak gaitzitu behar izaten dituzte enplegu bat eskuratzeko. Azkeneko urteetan aurrerapenak egon diren arren laneratzearen aldeko ekinean, batez ere gizarte-ekonomiako erakundeen protagonismoarekin (elkartek, federazioak, enplegu-zentro bereziak eta abar), kolektibo horrek jardura-tasa apalak eta langabezia-tasa handia erakusten ditu oraindik ere.

Hori hala den aldetik, kolektiboa laneratzeko orain arte egindako ahaleginarekin bat egitea da honen xedea. FEDEAFES Buru Gaixotasuna duten Pertsona eta Senide Elkarten Euskadiko Federazioak eta hura osatzen duten erakundeek duten interesari erantzuten dio; hau da, gaixotasun mentalak dituzten pertsonak ahalduztzea, hobekuntzak eta berritasuna txertatuz enpleguaren alorreko programetan eta esku-hartze zerbitzuetan.

Horretaz gainera, proiektuak FEDEAFESen eta hura osatzen duten erakundeen partaidetza asoziatiboa eta kohesioa indartzen laguntzen du EAEko lurralde historikoetan; izan ere, horien artean jakintza trukatzeko loturak ezartzeko jomuga du, baita beste intereseko eragile batzuekin ere, guztia ere esku hartzea hobetzera bideratuta egonik.

Gainera, biziki garrantzitsutzat jo da lan honetan kolektiboaren partaidetza zuzena eta aktiboa indartzea, eta elkarteek esku hartzeko programak eta zerbitzuak zehaztu, diseinatu eta planifikatzeko prozesuetan parte har zezaten nahi izan dugu.

FEDEAFESek eta EDE Fundazioaren Ikerketa Sozialeko Zerbitzuak lankidetzan garatutako proiektu bat da, eta bi erakundeon ezagutza eta esperientzia espezifikoak bateratzea du helburu.

FEDEAFES Buru Gaixotasuna duten Pertsona eta Senide Elkarten Euskadiko Federazioa 1987an sortu zen, eta harrez geroztik, kolektibo horren ordezkari gisa jardun du Euskal Autonomia Erkidegoan.

Hauexek dira federazioaren xedeak: gaixotasunek eragindako pertsonen eta horien senideen bizi-kalitatea hobetzeko ekimenetan ikerketa, trukea, ikaskuntza eta berrikuntza sortzea; bizi-kalitateko ereduaren barruan politikak eta esperientziak bultzatzea eta zabaltzea; eraginpeko pertsonen eta haien senideen duintasunaren eta eskubideen alde egitea eta horiek aldarrikatzea; gizartearen sentsibilizatzea; foro eta sareetan parte hartzea; eta eraginpeko pertsonentzat eta haien senideentzat mesedegarriak izango diren politika publikoak eskatzea.

Ikerketa Sozialeko Zerbitzuak ibilbide zabala du esku-hartze sozialaren alorreko ikerketan. Hala, zerbitzu horrek jakintzaren aldeko apustua egiten du jarduteko, eta plangintza- eta berrikuntza-eginkizunekin lotzen ditu ikerketak.

Ulertuta ikerketaren bidez gizarte-eraldaketarako ezagutza sortzen dela,

proiektu honetan garrantzi berezia eman zaio aztergai izan ditugun pertsonen eta erakundeen partaidetzari; azken batean, horiei zuzenduta baitago lana.

1. ESPARRU TEORIKOA

1.1. Gaixotasun mentala duten pertsonen definizioa eta ezaugarriak

Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) honela definitzen du osasun mentala: «Ongizate-egoera bat da, non gizabanakoa bere gaitasun propioen jakitun baita, bizitzako tentsio arruntei aurre egiteko gauza baita, modu produktiboan eta oparoan lan egin baitezake, eta kapaz baita erkidegoari ekarpen bat egiteko».

Gaixotasun Mentala duten Pertsonen eta haien Senideen Elkarteen Espainiako Konfederazioak (FEAFES), bere estilo-liburuan, honela definitzen du gaixotasun edo nahasmendu mentala: «Asaldura emozionala, kognitiboa edo portaerari lotutakoa, besteak beste oinarritzko prozesu psikologiko hauei eragiten diena: emozioa, motibazioa, kognizioa, kontzientzia, jokabidea, pertzepzioa, sentsazioa, ikaskuntza eta hizkuntza; horrenbestez, eraginpeko pertsonak bere gizarte- eta kultura-ingurunera egokitze zailtasunak ditu, eta nolabaiteko ondorez subjektiboa eragiten dio egoera horrek».

Gaixotasun mentala eragiten duten kausek ez diote erantzuten kausa-efektu eredu bati, baizik eta faktore askok eta askok sorraz dezakete (faktore biologiko, psikologiko eta sozialek, funtsean), eta batzuetan, ezezagunak dira faktore horiek, gainera.

Nahasmendu mentalak eta jokabidearen nahasmenduak ez dira talde sozial zehatz batenak bakarrik. Mundu zabalean, OMEk 2001ean egindako Munduko Osasunaren Txostenak emandako datuen arabera, 450 milioi pertsona inguruk dituzte nahasmendu mentalak, eta lau pertsonatik batek nahasmendu mental edo jokabidearen nahasmendu bat edo gehiago garatuko ditu bizitzan zehar.

Zaila da zehazki kalkulatzeko gure inguruan gaixotasun mentalen bat duten biztanleen kopurua. Kasu askotan, desberdinak dira kontsultatutako iturrietan baliatutako terminologia eta definizioak, eta horietako bakoitza talde desberdin bati buruzkoa da (batzuek desgaitasuna duten pertsonak aipatzen dituzte, orokorrean, edo desgaitasun-ziurtagiria duten pertsonak; beste batzuek, ordea, eskasia mentalak edota eskasia psikikoak aipatzen dituzte). Hala eta guztiz ere, datu batzuk emango ditugu ondoren, kolektibo hori gutxi gorabehera zenbat pertsonak osatzen duten jakite aldera.

Desgaitasune, autonomia pertsonalari eta mendekotasun-egoerei buruzko 2008ko inkestaren arabera (EDAD 2008), Euskadin desgaitasuna duten 169.400 pertsona daude –hau da, eguneroko bizitzako jarduerak egiteko muga garrantzitsuak dituzten pertsonak, baldin eta muga horiek urtebete badiraite edo urtebete irautea espero bada, eta urritasun bat bada horren jatorria–. Pertsona horien % 40 gizonetzkoak dira, eta % 60, emakumezkoak.


Euskadiko biztanleriaren % 7 inguruk, beraz, desgaitasunen bat du. Lurralde historikoaren arabera, pertsona horien % 54,4 (92.100) Bizkaian daude; % 32,2 (54.500), berriz, Gipuzkoan; eta Araban, berriz, % 13,5 (22.800).

Inkesta horretan bertan bildutakoaren arabera, halaber, Euskadin 27.600 bat pertsonak izango lituzkete «urritasun mentalak», horietako 14.000 emakumeak (% 50,7), eta 13.600, gizonak (% 49,3). Hala ere, urritasun mentalen kategoriak askotariko diagnostikoak hartzen ditu barnean; esate baterako, helduei atzerapena, urritasun intelektual sakona eta larria, urritasun intelektual neurritsua, urritasun intelektual arina, mugako adimena, dementziak, gaixotasun mentalak, eta bestelako nahasmendu mentalak eta portaeraren trastornoak.

Bestalde, EM-EMIKER Azterketa Soziologikoen Kabineteak 2006an egindako azterlan baten arabera (desgaitasuna duten pertsonen enpleguarekin lotuta duten egiazko egoerari buruzko azterlana), EAEn 51.840 pertsonak osatzen dute desgaitasuna duten eta adin potentzialki aktiboan dauden (16-64 urte) pertsonen populazioa (% 33ko minusbalotasuna edo handiagoa). Hau da, adin horretako populazioaren % 3,4 inguru. Gehien-gehienak gizonezkoak dira (31.612, % 61).

Bestalde, Desgaitasuna duten Pertsonen Estatuko Datu Basearen arabera, 2014an gutxi gorabehera 64.400 pertsonak zuten desgaitasun-ziurtagiria Euskadin. Kopuru horren barnean 4.400 lagunek (% 22,4) gaixotasun mentalaren ziurtagiria dute: % 59,2 gizonezkoak dira eta % 40,8 emakumezkoak.

**Desgaitasun-ziurtagiria duten pertsonak
EAE. 2014. ehunekoa**




1.2. Desgaitasuna eta laneratzea


Estatistikako Institutu Nazionalak (EIN) 2014an egindako Desgaitasuna duten Pertsonen Enpleguari buruzko inkestaren arabera, desgaitasuna duten pertsonen jarduera-tasa % 49koa da EAEn (betiere % 33ko edo hortik gorako desgaitasun-maila dutenen artean). Egia da tasa hori poliki-poliki areagotzen joan dela azkeneko urteetan –eta ehuneko hamahiru puntu gainera dago kolektibo horrek Estatu osoan duen jarduera-tasatik–; halere, oraindik ere oso tasa baxua da desgaitasunik gabeko pertsonen jarduera-tasaren aldean (% 76,2).

EAEko jarduera-tasak ez dauzkagu sexuaren eta desgaitasun motaren arabera banakatuta, baina baditugu Estatuko datuak. Hala, gizonezkoen jarduera-tasa handiagoa da gizonezkoena baino (% 39,5 eta % 36,1, hurrenez hurren). Nolanahi ere, egia da azkeneko urteetan sexuen arteko aldea murrizten joan dela poliki-poliki.

**Desgaitasuna duten pertsonen jarduera-tasaren bilakaera
EAE eta Estatura. 2009-2014 (%)**



**Desgaitasuna duten pertsonen jarduera-tasaren bilakaera,
sexuaren arabera. Estatuko emaitzak. 2009-2014 (%)**



**Desgaitasuna duten pertsonen jarduerata,
desgaitasun otaren arabera. EAE.
2014. Ehunekoak.**

	Jarduerata
Gaixotasun mentala	28,5
Desgaitasun fisikoa eta bestelakoak	40,5
Desgaitasun sentsoriala	50,5
Desgaitasun intelektuala	30
Guztira	38

Desgaitasun motaren arabera, **desgaitasun mentala duten pertsonak dute jarduerata apalena (%25,5).**

1.3. Desgaitasuna duten pertsonen laneratzean eragina duten araudi nagusiak

Araudi askok dute eragina desgaitasuna duten pertsonen laneratzean. Nazioartekoak ez ezik, autonomia-erkidegoak eta estatukoak ere badira halako arauak. Azterlan honen helburua ez da araudi horien berrikuspen sakona egitea; nolana ere den, garrantzitsu iritzi diogu gure inguruko araurik esanguratsuenak aipatzeari.

Lehenik eta behin, **2020rako Enpleguaren Euskal Estrategia** aipatu behar dugu: dokumentu horretan, Euskadiko enplegu-politikak orientatuko dituzten gidalerroak ezartzen dira. Hori hala, azaleratzen du desgaitasuna duten pertsonen egoera negatiboa bizi dutela gaur egungo lan-merkatuan. Horrenbestez, aukera-berdintasunari buruzko D ardatzeko gidalerroak ezarritako orientazioak aipatzen du beharrezkoa dela desgaitasuna duten pertsonen jarduerata hobea lortzea eta pertsona horiek enplegu arrunta eskuratu ahal izatea. Zehazki, enplegu-zentro berezietan orain artean lortutako esperientzia arrakastatsuak finkatu eta indartu egin behar direla aipatzen da, baita beste ildo batzuetan aurrera egiten jarraitu behar ere. Adibidez:

- ✓ Desgaitasuna duten pertsonen lan-gaitasunei buruzko esperientziei balioa eta ikusgarritasuna ematea, baita pertsona horien enpleguak sortzen duen balio erantsiaren gainekoa ere.
- ✓ Desgaitasuna duten pertsonak lan-munduan txertatzeko bideetan kalifikazio-prozesuen eragin handiagoa.
- ✓ Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren Testu Bategina onartzen duen Legegintzako 1/2013 Errege Dekretua bete dadin lortzea. 50 langile baino gehiago dituzten enpresetan taldearen % 2 desgaitasuna duten pertsonak izanda edo indarrean den araudiak ezarritako hautazko neurriak betez, izugarri hobetuko litzateke kolektibo horrek lana eskuratzeko bidea, oraindik ere ez baita betetzen, neurri handi batean. Horretarako, ezinbestekoa da informazio- eta sentsibilizazio-kanpainekin osatzea ikuskaritza eta

- zehapenak.
- ✓ Desgaitasuna duten pertsonen enpleguarekin lotutako klausula sozialak onartzea eta aplikatzea kontratazio publikoan.
 - ✓ Enplegu-zentro berezietarako ekoizpen-jarduera berriak identifikatzea, halakoetan merkataritzako diru-sarrera gehiago sortzea ahalbidetzen duten merkatu-enpresekin lankidetzak ezartzeko, eta aldi berean, desgaitasuna duten pertsonak enplegu arruntan
 - ✓ sartzea errazteko loturak indartzeko.
 - ✓ Zerbitzu espezializatuak garatzea desgaitasuna duten pertsonen laneratzeko orientazioa eta laguntza emateko, betiere Lanbiden garatzen den orientazio-ereduaren esparru erkidean.
 - ✓ Berrikuntza teknologikoa eta egokitze laguntzak sustatzea, lanpostuak desgaitasuna duten pertsonen beharrezkotasunara egokitzen
 - ✓ joateko.
 - ✓ Sareak ezartzea erakunde publikoen, enpresen eta hirugarren sektorearen ahaleginak bateratu ahal izateko, desgaitasuna duten pertsonen laneratzeko errazteko, pertsona horiek beti egoera kalteberan egon diren aldetik.

Bestalde, indarrean den **2014-2016 aldirako Enplegu Planak** lan-merkatuaren ahultasun gisa identifikatzen ditu «desgaitasuna duten pertsonen enplegua eskuratzeko dituzten zailtasun handiak, batez ere lan-merkatu arruntan», eta aipatzen du beharrezkoa dela «sentsibilizatzen jarraitzea enpresetan eta bestelako gizarte-eragileen artean desgaitasunaren errealitateari, desgaitasuna duten pertsonen ahalmenari eta halako pertsonak laneratzeko dauden laguntza-programei eta araudiei buruz».

Planak hainbat neurri ezartzen ditu desgaitasuna duten pertsonen pizgarriak eta babesak emateko, bereziki 5. programa operatiboan, enplegu barneratzaileari buruzkoan. Enplegurako solidaritatea. Zehazki, 5.3 ardatzaren barruan (bazterkeria-arriskuan dauden pertsonen gaikuntza eta laneratzeko laguntza emateari buruzkoa) aipatzen da beharrezkoa dela desgaitasuna duten pertsonak zehazki babestea. Hona hemen zehazten dituen pizgarri- eta babes-neurriak:

- ✓ Enplegurako prestakuntza bazterkeria-arriskuan dauden pertsonentzat.
- ✓ Prestakuntza- eta enplegu-prozesuak enplegu-zentro berezietan.
- ✓ Gizarte- eta lanbide-garapenerako prozesuak eta laneratzeko enpresen bidez enplegura iragaiteak.
- ✓ Desgaitasuna duten pertsonen enpresa arruntetan lan-kontratu mugagabeak egiteko laguntzak.
- ✓ Enplegurako laguntzak merkatu arruntan.
- ✓ Orientazio zehatza desgaitasuna duten eta bazterkeria-arriskuan dauden pertsonentzat.
- ✓ Babesa ematea zeinu-hizkuntzarako itzulpenen bidez, entzumen-desgaitasuna duten pertsonen gaikuntza-jarduera estandarretan parte har dezaten.

Gaixotasun mentala duten pertsonen laneratzeari buruzko beste dokumentu

esanguratsu bat **Lanbideren Plan Estrategikoa 2013-2016** da; plan horren Jarraieraren 4. Ardatz Estrategikoan hau ezartzen da: «Gizartearen kohesioan aurrera egitea, zailtasunak dituzten taldeei prestazio publikoak eta laneratzea eraginkortasunez kudeatuz».

Illo horretatik, ardatz horretako lehendabiziko helburuak zera ezartzen du: «Aukera-berdintasunean aurrera egitea, adina, sexua, jatorria, gaitasuna eta bestelakoak albo batera utzita, eta enplegua eskuratzeko zailtasunak dituzten pertsonen laneratzea sustatzea, bazterkeriaren arriskua eta kronifikazioa saihestuz». Helburu horren barruan, 2. ekintza-lerroak zehazten du beharrezkoa dela «Ezgaitasunak edota buru-gaixotasunak dituzten pertsonak babestu eta sustatzeko neurriak garatzea lan-aktibazio, prestakuntza eta lan-sustapeneko programetan zeharka».

2. METODOLOGIA

2.1. Helburuak


Hau da azterlanaren helburu orokorra:

Mapa diagnostiko bat egitea eta erronkak modu kolektiboan identifikatzea, gaixotasun mentala duten pertsonentzako gizarteratze- eta laneratze-baliabideen egungo eskaintza hobetzeko EAEn.

Horretarako, honako helburu operatibo hauek ezarri dira:

- ✓ Gaixotasun mentala duten pertsonentzat EAEn dauden gizarteratze eta laneratze-baliabideak deskribatzea.
- ✓ Baliabideen egungo indarguneak eta ahulguneak identifikatzea, hainbat ikuspegitik.
- ✓ Erronkak adostea, baliabideen eskaintza hobetzeko.

2.2. Lan-prozesua



2.3. Teknikak

1.- Dokumentuen berrikuspena:

Iturri garrantzitsuak eta azterlanaren xedearekin koherenteak direnak aztertu dira, gaiarekin lotutako hainbat tipologia barnean harturik (araudia, txosten nazionalak eta nazioartekoak, ebaluazioak, ikerketak, memoriak, estatistikak eta abar). Informazio horri esker, azterlanaren erreferentzia-esparruan sakondu ahal izan da, baita EAEko egungo eskaintzaren parte diren eragileak eta baliabideak identifikatu ere.

2.- Talde eragilearen lan-saioak:

Talde eragile bat osatu dugu, proiektuko ekintza guztiak garatzen laguntzeko. Honako hauek osatzen dute talde hori: EDE Fundazioko langileak (ikerketa sozial aplikatua eta enpleguan esperientzia zabala duten bi pertsona), FEDEAFESeko bi pertsona, eta sarea osatzen duten erakundeetako enplegu-esparruko profesionalak (AGIFESeko kide bat, ASASAMeko bat, ASAFESeko bi eta AVIFESeko bat), eta FEDEAFESeko gaixotasun mentala duten pertsonen batzordeko kide bat. Guztira, hamar lagunek osatu dute talde eragilea.

Proiektuaren lehenengo fasean egindako bileretan, besteak beste, honako gai hauek landu dituzte: proiektua bideratzea (aurrez aurre eta birtualki), kolektiboaren enplegurako baliabideak eskaintzen dituzten erakundeen gaineko informazioa ematea, informazioa biltzeko erremintak prestatzea, eragile garrantzitsuak identifikatzea, lan-hipotesiak ezartzea eta abar.

Azpimarratu behar dugu talde eragilearen lan-prozesua eraikuntza kolektibotzat hartu dela: tartean sartutako pertsonen egiten duten diagnostikoa du abiapuntu eta emaitza gisa martxan jartzeko moduko ekintzak eta aldaketak identifikatzen ditu. Errealitatea nolakoa den ikusi eta berau aldatzeko partaidetza-formula bat da, bai eta lantzen den errealitate guztien inguruan kontzientzia hartzeko gune bat ere.

Zehazki, aurrez aurreko lan-saio bat antolatu da, eta taldeak modu aktiboan parte hartu du ikerketaren diseinuan eta garapenean:

Saioko parte-hartzaileak (2016/05/24):

Mari Jose Cano (FEDEAFESeko gerentea), **Amaia Arbaiza** (FEDEAFESeko proiektu-arduraduna), **María Isabel García** (Gaixotasun mentalak dituzten pertsonen batzordeko ordezkaria), **Veronica Pazos** (AGIFESeko gizarte-langilea), **Josune Larreategi** (ASASAMeko lanerako zentroaren arduraduna), **Justi Gestoso** (ASAFESeko enplegu-teknikaria), **Endika Minguela** (ASAFESeko enplegu-zentro bereziko arduraduna), **Resu Casanova** (AVIFESeko gizarte- eta hezkuntza-alorreko arduraduna), **Irama Vidorreta** (EDE Fundazioko teknikaria) eta **Carlos Gacía** (EDE Fundazioko enplegu-alorreko arduraduna).

3.- Galdetegia:

2016ko ekainetik urrira bitartean egin genuen azterlanean aztergai izan ziren pertsonen buruzko informazioaren bilaketa, horretarako berariaz diseinatutako galdetegi baten bidez.

Galdetegia fitxa independente batzuez osatuta zegoen (zazpi fitxa orotara). Lehendabiziko fitxan (0. fitxa) galdera orokor batzuk biltzen ziren, eta erakunde guztiek nahitaez erantzun behar zuten. Hortik aurrera, erakunde bakoitzak eskaintzen zituzten enplegurako baliabideei zegozkien fitxak bakarrik bete behar zituzten (ikus galdetegi osoa II. eranskinean).

- 0. Fitxa: Fitxa orokorra
- 1. Fitxa: Informazioa eta orientazioa
- 2. Fitxa: Prestakuntza-baliabideak
- 3. Fitxa: Lanbide-baliabideak
- 4. Fitxa: Enplegu babestua
- 5. Fitxa: Enplegu arrunta
- 6. Fitxa: Laneratze-enpresa

4.- Mintegia:

Proiektuaren bigarren fasean, lan-mintegi bat antolatu zen Bilbon (Bolunta). Saioaren helburua zera zen, ikusmoldea irekitzea eta talde eragilearen hausnarketa-taldean beste eragile batzuk ere biltzea (osasunaren alorreko profesionalak, beste erakunde batzuetako enplegu-programetako profesionalak, senitartekoak eta abar), analisi kuantitatiboa haiekin alderatzeko eta, gainera, hausnarketan are gehiago sakontzeko, elkarrekin identifikatze aldera kolektiboaren enplegu-baliabideen eskaintza hobetzeko erronkak.

Aurrez aurreko saioan hurrengoek parte hartu zuten (2016/11/21):

Mari Jose Cano (FEDEAFESeko gerentea), **Amaia Arbaiza** (FEDEAFESeko proiektu-arduraduna), **María Isabel García** (Gaixotasun mentala duten pertsonen batzordeko ordezkaria), **Veronica Pazos** (AGIFESeko gizarte-langilea), **Josune Larreategi** (ASASAMeko lanerako zentroaren arduraduna), **Resu Casanova** (AVIFESeko gizarte-eta hezkuntza-alorreko arduraduna), **Irama Vidorreta** (EDE Fundazioko teknikaria), **Carlos García** (EDE Fundazioko enplegu-alorreko arduraduna), **Kai Alonso** (gaixotasun mentala duen pertsona baten ahaidea), **Yolanda Secunza** (gaixotasun mentala duen pertsonaren senitartekoa), **Begoña Errazti** (Eragintza Fundazioko zuzendari nagusia), **Eneritz Bengoetxea** (Eragintza Fundazioko Zerbitzu Psikologiko eta Soziolaboraleko zuzendaria), **Alesander Gómez** (Lantegi Batuak erakundeko enplegu-teknikaria), **Begoña Mata** (Lantegi Batuak), **María Jiménez** (Grupo SIFU taldeko babes-unitateko teknikaria), **Sarai Caneda** (CEE Integra Bilbaoko arduraduna), **Gotzon Villano** (Araba Ospitale Psikiatrikoko gizarte-langilea), **Mikel Zarate** (Zamudioko Ospitale Psikiatrikoko gizarte-langilea), **Joseba**

(Zamudioko Ospitale Psikiatrikoko praktiketako ikaslea).

Honako hauek ez ziren bilerara joan:

Justi Gestoso (ASAFESeko enplegu-teknikaria), **Endika Minguela** (ASAFESeko enplegu-zentro bereziko arduraduna), **Pablo Moratalla** (EHLABE), **Patxi Arrazola** (Oarsoaldea) eta **Teodoro Alonso** (Indesa).

Honako hauek idatzizko ekarpenak egin zituzten:

Justi Gestoso (ASAFESeko enplegu-teknikaria), **Patxi Arrazola** (Oarsoaldea)

2.4. Aztergaia

Azterlan orok bere aztergaia mugatu behar du, proposatutako helburuak lortu ahal izateko, eta eskura dauden baliabideak optimizatuta; horrekin batera, gaiaren zehaztasuna eta trataera egokia ere bermatu behar dira. Kasu honetan, aztertu beharreko unibertso hauxe finkatu da: **gaixotasun mentala duten pertsonen laneratze-baliabideak eta arreta ematen dieten erakundeak (zehazki gaixotasun mentala duten pertsonentzako erakundeek, desgaitasuna duten pertsonekin dihardutenek, eta kalteberatasuneko edo gizarte-bazterkeriako egoeran dauden kolektiboekin lan egiten dutenek, esate baterako, jarduera esanguratsua dute dagokigun kolektiboarekin).**

Gaixotasun mentala duten pertsonen enplegurako baliabideak eskaintzen dizkieten **39 erakunde** identifikatu dira guztira (zehetasun gehiago eskuratzeko, ikus erakunde horietako bakoitzari buruzko informazio-fitxa, l. eranskinean).

2.5. Lagina

Identifikatutako 39 erakundeei helarazi zitzaizkien galdetegiak, eta azkenik, **18 erakunderen erantzunak jaso ziren; hau da, partaidetza-indizea % 50ekoa izan zen.** Ondoren, taula bat jaso da, aztergai den unibertsoaren banaketarekin, lurralde historikoaren arabera eskuratutako laginarekin, erakundeek artatzen duten kolektiboarekin eta kasu bakoitzean lortutako partaidetza-ehunekoarekin.

		UNIBERTSOA	LAGINA	PARTAIDETZA - %
LURRALDE	ARABA	9	5	55,5
HISTORIKOA	BIZKAIA	18	8	44,4
	GIPUZKOA	12	5	41,6
KOLEKTIBOA	GAIXOTASUN MENTALA	5	4	80
	DESGAITASUNA	22	12	54,54
	GIZARTE	12	2	16,66
	BAZTERKERIA			
	GUZTIRA	39	18	50

2.6. Analisia

Datuen analisi kuantitatiboa egiteko, SPSS estatistika-paketea baliatu da. Estatistika-baliabide horren bidez, beharrezko estatistika-formulak egin daitezke eskuragarri dauden datuei etekinik handiena ateratzeko.

Zehazki, lehendabiziko analisi deskribatzaile bat egin da (oinarrizko datu estatistikoak), eta horrekin batera, aldagai independente batzuen arabera banakatu dira datuak (batez ere, erakundeek artatzen duten kolektiboaren arabera).

3. GAIXOTASUN MENTALA DUTEN PERTSONENTZAT EAE-N DAUDEN ENPLEGU-BALIABIDEEN MAPA

GAIXOTASUN MENTALA DUTEN PERTSONENTZAKO EAE-KO ENPLEGU-BALIABIDEEN SAILKAPENA

1. Irizpidea. Lurralde historikoaren arabera.

- Araba
- Bizkaia
- Gipuzkoa

2. Irizpidea. Bere jardunaren kolektibo nagusiaren arabera.

- Batez ere gaixotasun mentala duten pertsonen kolektiboak.
- Batez ere desgaitasuna duten pertsonen beste kolektibo batzuei.
- Batez ere gizarte-bazterkeria pairatzeko egoeran eta/edo arriskuan dauden pertsonen kolektiboari.

3. Irizpidea. Laneratze prozesurako etaparen arabera.

- Informazioa eta orientazioa
- Prestakuntza
- Lanbide-zerbitzua
- Enplegu babestua
- Enplegu arrunta (lagundua edo lagundu gabea)
- Laneratze-enpresa

4. Irizpidea. Eskaintzen duen erakundearen titulartasunaren arabera.

- Publikoa
- Pribatua
- Hirugarren sektoreko pribatua
- Pribatua bestelakoak
- Mistoa

5. Irizpidea. Eskaintzen duen erakundeak gauzatutako jarduera nagusiaren arabera.

- Batez ere laneratze-baliabideak
- Askotariko baliabide-eskaintza, laneratze-baliabideak ere biltzen dituenak.

EAEn gaixotasun mentala duten pertsonen laneratze-baliabideak eskaintzen dizkieten erakundeak.



BIZKAIA

Kolektiboa	Kop.	%
Gaixotasun mentala	1	5,6
Desgaitasuna	12	66,7
Bazterkeria	5	27,8


ARABA

Kolektiboa	Kop.	%
Gaixotasun mentala	2	22,2
Desgaitasuna	4	44,4
Bazterkeria	3	33,3

GIPUZKOA

Kolektiboa	Kop.	%
Gaixotasun mentala	2	16,7
Desgaitasuna	6	50,0
Bazterkeria	4	33,3

*Egoitza edo ordezkari bat baino gehiago identifikatu zaizkien erakundeak.

**BIZKAIA**

Zerbitzu mota	Kop.	%
Informazioa eta orientazioa (I-O)	11	61,1
Enplegu babestua (EB)	11	61,1
Prestakuntza (P)	10	55,6
Lanbide-zerbitzua (LZ)	6	33,3
Enplegu arrunta (EA)	4	22,2
Laneratze-enpresa (LE)	2	11,1

ARABA

Zerbitzu mota	Kop.	%
Informazioa eta orientazioa (I-O)	5	55,6
Enplegu babestua (EB)	5	55,6
Prestakuntza (P)	4	44,4
Lanbide-zerbitzua (LZ)	2	22,2
Enplegu arrunta (EA)	2	22,2
Laneratze-enpresa (LE)	2	22,2

GIPUZKOA

Zerbitzu mota	Kop.	%
Informazioa eta orientazioa (I-O)	6	50
Enplegu babestua (EB)	5	41,7
Prestakuntza (P)	5	41,7
Lanbide-zerbitzua (LZ)	3	25
Enplegu arrunta (EA)	2	16,7
Laneratze-enpresa (LE)	1	8,3

*Egoitza edo ordezkari bat baino gehiago identifikatu zaizkien erakundeak.

**Ehuneko batura ez da 100 erakunde batek zerbitzu bat baino gehiago eskaini ditzakeelako.

**BIZKAIA**

Titulartasuna	Kop.	%
Publikoa (PU)	3	16,7
Pribatua	14	77,8
Pribatua, irabazi asmorik gabea (PIAG)	10	55,6
Beste pribatu batzuk (P)	4	22,2
Mistoa (M)	1	5,6


ARABA

Titulartasuna	Kop.	%
Publikoa (PU)	1	11,1
Pribatua	7	77,8
Pribatua, irabazi asmorik gabea (PIAG)	5	55,6
Beste pribatu batzuk (P)	2	22,2
Mistoa (M)	1	11,1

GIPUZKOA

Titulartasuna	Kop.	%
Publikoa (PU)	1	8,3
Pribatua	9	75,0
Pribatua, irabazi asmorik gabea (PIAG)	6	50
Beste pribatu batzuk (P)	3	25,0
Mistoa (M)	2	16,7

*Egoitza edo ordezkari bat baino gehiago identifikatu zaizkien erakundeak.

**BIZKAIA**

Jarduera	Kop.	%
Batez ere laneratze baliabideak (LB)	16	88,9
Hainbat baliabide (H)	2	11,1

ARABA

Jarduera	Kop.	%
Batez ere laneratze baliabideak (LB)	5	55,6
Hainbat baliabide (H)	4	44,4

GIPUZKOA

Jarduera	Kop.	%
Batez ere laneratze baliabideak (LB)	11	91,7
Hainbat baliabide (H)	1	8,3


*Egoitza edo ordezkari bat baino gehiago identifikatu zaizkien erakundeak.

EAE 39 erakunde ***LURRALDE HISTORIKOA**

Araba: 9 (% 20,5)
 Bizkaia: 18 (% 46,2)
 Gipuzkoa: 12 (% 33,3)

ARTATZEN DUEN KOLEKTIBOA

Desgaitasuna: 22 (% 56,4)
 Gizarte-bazterkeria: 12 (% 30,8)
 Gaixotasun mentala: 5 (% 12,8)



BIZKAIA
 18 erakunde

ARABA
 9 erakunde

GIPUZKOA
 12 erakunde

ZERBITZU MOTA

Enplegu babestua: 22 (% 56,4)
 Informazioa eta orientazioa: 21 (% 53,8)
 Prestakuntza: 19 (% 48,7)
 Lanbide-zerbitzua: 10 (% 25,6)
 Enplegu arrunta: 9 (% 23,1)
 Laneratze-enpresa: 5 (% 12,8)

ERAKUNDEAREN TITULARTASUNA

Publikoa: 5 (% 12,8)
 Pribatua: 30 (% 76,9)
 Pribatua, irabazi-asmorik gabea: 20 (% 51,3)
 Pribatua, bestelakoak: 10 (% 25,6)
 Mistoa: 4 (% 10,2)

ERAKUNDEAREN JARDUERA

Batez ere laneratze-baliabideak: 32 (% 82)
 Askotariko baliabide-eskaintza: 7 (% 18)

*Entitateak jarduten duten lurralde historiko bakoitzeko kontatzen dira. Horri dagokionez, nabarmentzekoak dira hiru lurralde historikoetako guztietan presentzia duten erakundeak (Grupo Ilunion eta Grupo SIFU). Beste batzuek bi lurraldetan dihardute: Integrak eta Adecco Fundazioak (biek ere Bizkaian eta Gipuzkoan dituzten ordezkaritzak).

Gaixotasun mentala duten pertsonentzako laneratze-baliabideen mapa prestatzeko, orotara **39 erakunde** identifikatu dira. Horietatik, ia erdiak (% 46,2) Bizkaian daude, % 33,3 Gipuzkoan; azkenik, % 20,5 Araban daude. Identifikatutako erakundeek ia % 77 titulartasun pribatukoak dira, eta horien barnean, gehienak (% 51,3) irabazi-asmorik gabekoak. Era berean, nabarmendu behar da horien % 12,8 esparru publikoan sortutako ekimenak direla.

Erakunde horien jardunaren xede-kolektiboari erreparatzen badiogu, nabarmendu behar da gehienak desgaitasuna duten pertsonentzat direla (% 56,4), % 30,8k gizarte-bazterkeria pairatzeko egoeran edo arriskuan daudenak artatzen ditu, eta % 12,8, berriz, gaixotasun mentalak dituzten pertsonen kolektiboan espezializatuak dira.

Erakunde horiek nagusiki gauzatzen duten lanari erreparatzen baldin badiogu, nabarmendu behar da gehienek (% 82) enplegurako baliabideak eskaintzen dituztela; % 18k, berriz baliabide-eskaintza zabala du, eta horien artean sartzen dira, halaber, laneratze-baliabideak.

Zerbitzu motaren arabera, datuek erakusten dute enplegu babestua eta lanari buruzko informazioa eta orientazioa direla ohikoenak erakunde horietan. Haien % 56,4k lan-aukerak ematen dituzte enplegu babestuaren bidez, eta % 53,8k, berriz, lanari buruzko informazio- eta orientazio-zerbitzua eskaintzen du. Horrez gainera, % 48,7k prestakuntza-zerbitzua ere badu. Kasu honetan, enplegua laneratze-enpresen bidez ematea da ezohikoena. Identifikatutako erakundeek % 12,8k eskaintzen du enplegua modalitate horren bidez.

4. KONTSULTAREN EMAITZA NAGUSIAK

4.1. Kontsultaren emaitza nagusiak

Ondoren, kontsultaren emaitza nagusiak xehetasun handiagoz aurkeztuko ditugu, azterketan parte hartu duten 18 erakundeek emandako erantzunetan oinarrituta. Emaitzak zerbitzu mota bakoitzaren arabera azaltzen dira (informazioa eta orientazioa, prestakuntza, lanbide-zerbitzua, enplegu babestua eta enplegu lagundua).

Gogoratu behar da kontsultan lortutako partaidetza-indizea % 50ekoa dela, identifikatutako 39 erakundeetatik 18k erantzun baitzuten.

Lagina: 18 erakunde - identifikatuen % 50

Oharra: galdetegiari erantzun dioten erakundeek kopuru osoa ez dator bat zerbitzu mota bakoitzeko erantzun kopuruarekin; izan ere, erakunde berak zerbitzuak adina erantzun eman ditzake.

Informazioa eta orientazioa	Prestakuntza	Lanbide-zerbitzua	Enplegu babestua	Enplegu lagundua
6 erantzun	5 erantzun	8 erantzun	12 erantzun	5 erantzun

4.2. Lanari buruzko informazioa eta orientazioa

Informazioa eta orientazioa

6 erantzun

Eragintza

Indesa 2010

Lantegi

Entrema

Adecco Fundazioa*

Lanari buruzko informazio- eta orientazio-zerbitzuak funtsezko erreminta dira gaixotasun mentala duten pertsonen enplegarritasuna hobetzeko. Zerbitzu horien bidez, modu pertsonalizatuan diseinatzen da enplegu bila ari diren pertsonen laneratzea, eta horrela, laburtu egiten da pertsonen eta lan-merkatuaren arteko distantzia.

Kolektibo horrentzat lanari buruzko informazio- eta orientazio-baliabideak dauzkaten 21 erakunde daude identifikaturik mapan, eta haietatik sei erantzun dute; hau da, % 28,57 inguruk.


Pertsona-bolumenari erreparatzen baldin badiogu, kalkulatzen da **gaixotasun mentala duten 550 pertsona inguru artatu direla, 2015ean, lanari buruzko informazio- eta orientazio-baliabideren baten bidez**. Hamarretik zazpi **gizonezkoak dira**. Pertsona horiek gehienak (% 73,1) **gaixotasun mentala duten pertsonentzako baliabide espezializatuetan artatzen dira**.

2015ean...	Guztira	Gaixotasun mentalean espezializatutako erakundeak	Gaixotasun mentalean espezializatu gabeko erakundeak
Gaixotasun mentala duten emakumezko erabiltzaileak guztira	550	402	148
Gaixotasun mentala duten pertsonen ehunekoa, emakumezko erabiltzaileen guztizkoaren barnean	-	% 100	% 12,7
Gaixotasun mentala duten gizonak	% 69	% 69	% 69,4
Gaixotasun mentala duten emakumeak	% 31	% 31	% 30,6

% 73,1

Kontsultatutako erakundeen % 100en hitzetan, **gaixotasun mentala duten pertsonak lan-esparruan informatzen eta orientatzen diharduten pertsonen kolektiboaren gaineko prestakuntza espezifikoak dute**. Hala eta guztiz ere, erakunde gehienek (sei erantzunetik bostek) aitortzen dutenez, profesional horiek kolektiboarekin lotutako prestakuntza hobea jasotzeko premia sentitu dute.

Zure erakundeak lan-esparruan informazioa eta orientazioa ematen diharduten profesionalak, sentitu al dute inoiz gaixotasun mentala duten pertsonen inguruko prestakuntza hobea jaso beharko luketela?



4.3. Prestakuntza-baliabideak

Prestakuntza
5 erantzun
ASAFES
Eragintza
Gureak Taldea
Lantegi Batuak
Entremanos

Prestakuntza funtsezko erreminta da gaixotasun mentala duten pertsonen lan-integrazioa errazteko, aukera ematen baitiete eskuratu dezaketen lan-eskaintza zabaltzeko eta desgaitasunak lanpostu bat eskuratzerakoan izan ditzakeen efektu negatiboak arintzeko.

Kolektibo horrentzako prestakuntza-baliabideak dituzten 19 erakunde daude identifikaturik mapan, eta haietatik bostek erantzun dute; hau da, % 26,3 inguruk.

Pertsona-bolumenari erreparatzen baldin badiogu, kalkulatu da **gaixotasun mentala duten 801 pertsona inguru artatu direla, 2015ean, prestakuntza-baliabideren baten bidez**. Gehienak (% 65,5) **gaixotasun mentala duten pertsonetan espezializatutako erakundeetan artatu dira**.

Emandako prestakuntza-ekintzetako **uzte-tasa % 6koa da**, eta **nabarmen murriztagoa da** kolektiboan **espezializatutako baliabideetan** espezializazio hori ez dutenetan baino; % 4,6 eta % 8,5, hurrenez hurren. Sexuaren arabera, deigarria da **gizonezkoen artean uzte-tasa handia dela espezializatu gabeko erakundeetan**, % 11ra ere iristen baita.

2015ean...	Guztira	Gaixotasun mentalean espezializatutako erakundeak	Gaixotasun mentalean espezializatu gabeko erakundeak
Gaixotasun mentala izanik, prestakuntza-ekintza amaitzen duten pertsonak	801	532	269
Gaixotasun mentala duten pertsonen pisua, matrikulatutako pertsona guztiekiko	-	% 100	% 18,6
Prestakuntza-ekintzen uzte-tasa	% 6	% 4,6	% 8,5
Gizonen uzte-tasa	% 5,1	% 5,2	% 5
Emakumeen uzte-tasa	% 6,5	% 4,4	% 11

% 65,5

Desberdintasunak ikusi dira gaixotasun mentala duten pertsonak jasotzen duten prestakuntza motan, erakunde batetik bestera. Hori hala, askoz ere ohikoagoa da laneko erremintak eskuratzeari buruzko prestakuntza jasotzea (arreta oinarritzko laneko ohiturak eta gizarte- eta lan-trebetasunak eskuratzeari jartzen duena) kolektiboan espezializatutako erakundeetan (% 75,8); aldez, gaixotasun mentalean espezializatu gabeko erakundeetan ohikoagoa da (% 41,3) kolektiboan lanean hasi aurreko prestakuntza jasotzea (gaitasun pertsonalak eta teknikoak


hobetzera bideratua, pertsona bat egokiro konpondu dadin laneko testuinguru batean; esaterako, elikagaiak manipulatzeko, teknologia berrietan prestakuntza jasotzea eta abar).

Bestalde, kontsultatutako bost erakundeetatik lauren hitzetan, **erakundeak berak kudeatzen du prestakuntza**; hau da, erakundeak berak arduratzen dira prestakuntza-ekintzak antolatzeaz eta garatzeaz. Horietako batek, azkenik, adierazi du kudeaketa mistoa dela.

Gaixotasun mental duten pertsonen amaituriko prestakuntza-baliabideak.	Guztira	GMan espezializatutako erakundeak	GMan espezializatu gabeko erakundeak
Gaixotasun mentala izanik, prestakuntza-ekintza amaitzen duten pertsonak	801	532	269
Laneko erremintak eskuratzea	% 54,1	% 75,8	% 11,2
Lanean hasi aurreko prestakuntza	% 24,6	% 16,2	% 41,3
Laneko praktikak	% 2,0	% 2,8	% 0,4
Lanbide-prestakuntza	% 5,2	% 2,3	% 11,2
Etengabeko prestakuntza	% 14,1	% 3,0	% 36,1

Kontsultatutako erakunde guztiek adierazten dutenez, gaixotasun mentala duten pertsonak pozik edo oso pozik daude jasotako prestakuntza-ekintzekin.

Zure ustez, zer gogobetetze-maila dute gaixotasun mentala duten pertsonak, beren erakundeetan jasotzen dituzten prestakuntza-ekintzei dagokienez?



Prestakuntza-baliabideak dituzten bost erakunde kontsultatu dira, eta hiruk adierazi dute prestakuntza ematen duten pertsona guztiek dutela trebakuntza espezifiko. Prestakuntza-baliabideak dituzten bost erakunde kontsultatu dira, eta hiruk adierazi dute prestakuntza ematen duten pertsona guztiek dutela trebakuntza espezifikoa gaixotasun mentala duten pertsonen kolektiboaren inguruan. Beste bik, berriz, azaldu dute trebatzaile guztiek ez dutela halako baliabiderik, baina batzuek baietz.

Hala eta guztiz ere, erakunde guztien hitzetan, kolektiboari prestakuntza ematen dioten pertsonen sumatu dute noizbait prestakuntza hobea falta izan zaiela, gaixotasun mentala duten pertsonen kolektiboari dagokionez.

Zure erakundeak eskaintzen dituen prestakuntza-baliabideak ematen dituzten trebatzaileei dagokienez, badute prestakuntza espezifikorik gaixotasun mentala duten pertsonen kolektiboaren inguruan?



Azkenik, hauxe nabarmendu behar da: erakundeek %100ek bermatzen du emandako prestakuntza-ekintza guztiak egokitzen direla gaixotasun mentala duten pertsonen kolektiboaren premia espezifikoetara. Egiten dituzten egokitzapen nagusiez galdetzean, honako auzi hauek aipatu dituzte:

- ✓ Orduategia (kolektiboaren medikamenduak eta ezaugarriak aintzat arturik).
- ✓ Eduki didaktikoen banaketa.
- ✓ Prestakuntza emateaz arduratzen den enpresa (kolektiboa ezagutuz).
- ✓ Prestakuntzaren eskola-orduen kopurua (inoiz ere ez bost ordu baino gehiago egunean).
- ✓ Irakasleen prestakuntza.
- ✓ Atsedenaldiak.
- ✓ Gaixotasun mentalak hondatutako gaitasunak lantzeko ikastaro zehatzak.
- ✓ Saioen programazio pedagogikoan (materialak eta dinamikak).

Lanbide-zerbitzua

8 erantzun

ASAFES

ASASAM

Eragintza

Lantegi Batuak

Gallarreta Lantegiak

Usoa Lantegia

Gureak Taldea

Entremanos

4.4. Lanbide-baliabideak

Lanbide-baliabideak aukera ona dira pertsona jakin batzuentzat; zehazki, mugak dituztelako enpresa edo enplegu-zentro berezi batean lan egin ezin duten pertsonentzat. Halako pertsonen lanbide-terapiako zerbitzuak emateko jomuga dute, baita doikuntza pertsonal eta soziala ere. Desgaitasuna duten pertsonen horietan gauzatutako jarduera ezin da enplegutzat hartu; izan ere, irizpide terapeutikoak gailentzen dira, eta ez produktibitatea edo errentagarritasun ekonomikoa.

Desgaitasuna duten pertsonentzako lanbide-zentroak arautzen dituen abenduaren 4ko 2274/1985 Errege Dekretuak honela definitzen ditu lanbide-zentroak: «Desgaitasuna duten pertsonen laneratzeko prozesuan topatzen dituzten trabak gainditzeko bitarteko egoki bat, duten desgaitasuna dela-eta ezin dutenean jo enpresa edo enplegu-zentro berezi bateko lanpostu batera».

Kolektibo horrentzako lanbide-baliabideak dituzten 10

erakunde daude identifikaturik mapan, eta haietatik zortzik erantzun dute; hau da, % 80 inguruk.

Pertsona-bolumenari erreparatzen baldin badiogu, kalkulatu da **gaixotasun mentala duten 139 pertsona inguru artatu direla 2015ean, lanbide-baliabideren baten bidez**. Hamarretik zazpi gizonezkoak dira. Nabarmentzekoa da, gainera, ia guztiak (% 95) **gaixotasun mentala duten pertsonetan espezializatutako**.


2015ean...	Guztira	Gaixotasun mentalean espezializatutako erakundeak	Gaixotasun mentalean espezializatu gabeko erakundeak
Gaixotasun mentala duten erabiltzaileak	139	132	7
Gaixotasun mentala duten pertsonen pisua erabiltzaile guztiekiko	-	% 100	% 0,4
Gaixotasun mentala duten gizonezko erabiltzaileak	% 70,5	% 71,2	% 57,1
Gaixotasun mentala duten emakumezko erabiltzaileak	% 29,5		% 42,9

Oharra: garrantzitsua da argitzea Lantegi Batuak Fundazioak ez daukala gaixotasun mentala duen pertsonarik lanbide-zerbitzuan, eta Gureak Taldeak, berriz, ez duela zehazten gaixotasun mentala duten zenbat pertsonak diharduten zerbitzu horretan.


Kontsultatutako zortzi erakundetatik seik adierazten dutenez, erakundeko lanbide-baliabideren batean plaza eskatu eta plaza hori eman bitarteko epea **sei hilabete baino laburragoa da**. Horietako biren hitzetan, denbora hori sei hilabetetik urtebetera luzatzen da.

Bestalde, haxe nabarmendu behar da: bost erakundek adierazi dute **itxaron-zerrenda** dutela lanbide-baliabidea eskuratzeko. Haietatik bik esan dute zerrenda hori erakundeak dituen lanerako zentroren batean bakarrik existitzen dela, eta bakar batek adierazi du ez duela itxaron-zerrendarik.

Gutxi gorabehera, zenbat itxaron behar da zure erakundeko lanbide-baliabideren batean plaza eskatu eta plaza hori eman arte?




Gaur egun, bada itxaron-zerrendarik zure erakundearen lanbide-baliabidea eskuratzeko?




Lanbide-baliabideak dituzten erakundeetatik zortzi kontsultatu ditugu, eta bostek (% 62) adierazi dute erakundeotako lanbide-zerbitzuetako profesionalak badutela prestakuntza espezifikoa gaixotasun mentala duten pertsonen kolektiboari buruz. Horietako hiruk, berriz, azaldu dute trebatzaile guztiek ez dutela halako prestakuntzarik, baina batzuek baietz.

Hala eta guztiz ere, erakunde guztiek adierazi dute kolektiboari lanbide-zerbitzuak eskaintzen dizkieten pertsona guztiek sumatu dutela noizbait prestakuntza hobea falta izan zaiela gaixotasun mentala duten pertsonen kolektiboari buruz.

Zure erakundeak eskaintzen dituen lanbide-baliabideak ematen dituzten trebatzaileei dagokienez, badute prestakuntza espezifikorik gaixotasun mentala duten pertsonen kolektiboaren inguruan?




Zure erakundearen lanbide-baliabideak ematen diharduten profesionalak, sentitu al dute inoiz gaixotasun mentala duten pertsonen inguruko prestakuntza hobea jaso beharko luketela?



Osasun mentaleko zentroen sareko lanbide-baliabideei dagokienez, halako bi erakundetatik batek adierazi du koordinazio hori etengabea eta arina dela; gainerakoek, berriz, adierazten dute koordinazio hori unean unekoa dela eta, eskuarki, lanbide-zentroak edo osasun mentaleko zentroak beharrezkotzat jotzen duenean bakarrik gertatzen dela.


Nola deskribatuko zenuke zure erakundearen lanbide-baliabideetako profesionalen eta baliabide horien erabiltzaileak artatzen dituzten osasun mentaleko zentroen sarearen arteko koordinazioa?



Gaixotasun mentalean espezializatu gabeko hiru erakundeetatik bik adierazi

dutenez, erakundeko lanbide-baliabideetan absentismoa handiagoa da kolektibo horretan, gainerako kolektiboetan baino. Horietako batek adierazi duenez, berdintsua da baliabidera jotzen duten kolektibo guztien absentismoa.


Zure erakundeko lanbide-baliabideei dagokienez, zenbaterainokoa da absentismoa gaixotasun mentala duten pertsonen artean?



(*) Gaixotasun mentala duten pertsonekin ez ezik, beste kolektibo batzuekin ere lan egiten duten erakundeek bakarrik erantzuten dute.

Ohikoa izaten da erakundeek plaza gordetzea gaixotasun mentala duen pertsona bati iraupen luzeko bajen edo baja ohikoen kasuan, gaixotasun mentalaren ondorioz gertatzen badira (hala gertatzen da kontsultatutako lau erakundetan). Halere, bi erakundek adierazi dute kasu zehatz bakoitzaren arabera erabakitzen dela plaza gorde ala ez.

Zer gertatzen da zure erakundeko lanbide-baliabide plazarekin, baliabidean plaza duen gaixo mental bati iraupen luzeko baja medikoak eta/edo ohiko baja medikoak aitortzen zaizkionean, gaixotasun mentala dela eta?




2015ean, **gaixotasun mentala duten 58 pertsona igaro ziren lanbide-baliabide batetik beste enplegu-baliabide batera** (enplegu-zentro berezia edo enplegu arrunta). Baliabide horietara igarotako pertsona gehienak **gizonezkoak** izan ziren (% 66,7). Erakunde motaren arabera, adierazi behar da beste enplegu-baliabide batzuetara igarotzen diren pertsonen % 63,8 gaixotasun mentalean espezializatutako erakunde batera igaro dela.

% 63,8

2015ean...	Guztira	GMan espezializatutak o erakundeak	GMan espezializat u gabeko erakundeak
Gaixotasun mentala izanik, enplegu-zentro berezietara edo enplegu normalizatura igarotzen diren pertsonak.	58	37	21
Gaixotasun mentala izanik, enplegu-zentro berezietara edo enplegu babestura igarotzen diren pertsonen ehunekoa.	-	% 100	% 27,3
Gaixotasun mentala izanik, enplegu-zentro berezietara edo enplegu normalizatura igarotzen diren emakumeak.	% 33,3	% 24,3	% 38
Gaixotasun mentala izanik, enplegu-zentro berezietara edo enplegu normalizatura igarotzen diren gizonak.	% 66,7	% 75,7	% 62

Oharra: gaixotasun mentala duten pertsonetan espezializatu gabeko zentroetan, lanbide-baliabide batetik enplegu-zentro berezietara edo enplegu arruntera igarotzen diren pertsonen kopurua handiagoa da (21) erakunde horietako lanbide-zerbitzuen erabiltzaileen guztizko kopurua baino (7); izan ere, oraingoan bada Gureak Taldearen informazioa.

Azkenik, bada nabarmendu beharreko beste puntu bat: kontsultatutako erakunde gehienek adierazten dutenez, lanbide-baliabideko jardura hobeto egokitzen da gaixotasun mentala duten pertsonen beharrian espezifikoetara. Aldiz, erakunde horietako biren hitzetan, jardura guztiak ez dira egokitzen beharrian horietara, nahiz eta batzuk egokituta dauden.



Egiten dituzten egokitzapen nagusiez galdetzean, honako auzi hauek aipatu dituzte:

- ✓ Pertsona bakoitzari arreta indibidualizatua ematen zaio.
- ✓ Koordinazio arina familiarekin eta osasun mentaleko zentroarekin, saiatzen baikara haietako bakoitzak dituen eskakizunetara egokitzen.
- ✓ Eguneroko lanak egokituta daude gustu eta lehentasunetara.
- ✓ Eskuarki, baimen bereziak eman ohi dituzte lanerako zentroaren osagarri gisako jarduerak egiteko, jakinda lagungarriak izaten direla ongizate emozionalerako.
- ✓ Enpleguaren aurreko alderdiak jorratzen dira, beste baliabide batzuetarako bisitak eta abar.
- ✓ Pertsona bakoitzaren lan-erritmoa errespetatzen da, une bakoitzean nola dauden kontuan izanik.
- ✓ Zentrora sartzeko ordutegia egokitu egiten da unean-unean, pertsonak gehiago atseden hartu behar duenean, gaixotasun mentalaren eraginez.
- ✓ Zahartze-prozesuetara egokitzea.
- ✓ Pertsonen babesa ematea gaixotasunaren aldi goiztiarretan.

- ✓ Lan berean ematen duen denbora mugatzea.
- ✓ Baliabidera sartzeko egokitzapen-prozesua.

4.5. Enplegu babestua

Enplegu babestua
erantzun 1
ASAFES
Eragintza
Lantegi Batuak
Gallarreta
Indesa
Ranzari
Grupo SIFU* (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa)
Usoa Lantegia
Entremanos
Integracee Donostia

Enplegu babestutzat hartzen da enpresa arruntetan berariaz desgaitasuna duten pertsonentzat sortutakoa, betiere halako pertsonak lan-merkatuan errazago sar daitezten. Estatuan enplegu babestu gehien sortu duten erakunde nagusiak **enplegu-zentro bereziak** izan dira historikoki. Zentro horietan sortutako enpleguak, printzipioz, ohiko merkatuan sortutakoaren ezaugarri berak ditu, nahiz eta egia den enplegu-zentro bereziek babes jakin batzuk eskaini behar dituztela, desgaitasuna duten langileen laneratzea errazteko.

Minusbaliatua Gizarteratzeko apirilaren 7ko 13/1982 Legearen 42. artikulua arabera, enplegu-zentro berezien helburu nagusia hau da: «lan produktiboa egitea, merkatuko eragiketetan modu erregularrean parte hartuz; haien xedea izaten da ordaindutako enplegua bermatzea desgaitasuna duten pertsonen eta doikuntza pertsonaleko eta sozialeko zerbitzuak ematea, eta horrez gainera, desgaitasuna duten pertsonen kopuru ahalik eta handiena lan-araubide arruntan txertatzeko bidea izatea».

Enplegu-zentro berezien bidez laneratzea da enplegu babestuaren modalitatetik ohikoena. Dena den, badira beste formula batzuk ere, nahiz eta gutxiago erabili: haiek ere potentzial handia dute desgaitasuna duten pertsonentzako enplegua sortzeko.


Lan-eremuak enplegu babestua eskaintzeko formula bat dira, eta enplegu-zentro bereziak ohiko enpresetara gerturatzea dute xede. Lan-eremuak zehazteko, kontratu bat sinatzen da merkatu arrunteko enpresa baten eta enplegu-zentro berezi baten artean, enpresaren jarduera arruntarekin harreman zuzena duten obrak edo zerbitzuak egiteko. Hartarako, enplegu-zentro bereziko desgaituak aldi baterako joaten dira enpresa kolaboratzailerara. Enplegu-zentro bereziari dagokio lan-eremuko lana zuzendu eta antolatzeke ardura.

Otsailaren 20ko 290/1994 Errege Dekretuko xedapen orokorretako I. kapituluak lan-eremuak arautzen ditu, enplegua sustatzeko neurri gisa, eta honela definitzen du: «*Lan-eremutzat hartzen da lan-merkatu arrunteko enpresa baten – enpresa kolaboratzaile deritzonaren – eta enplegu-zentro berezi baten artean formalizatutako kontratu oro, haren jarduera arruntarekin zuzenean lotutako obrak edo zerbitzuak gauzatzeko; horretarako, enplegu-zentro bereziko langile desgaitu batzuk enpresa kolaboratzailearen lantokira joango dira aldi baterako*».

Kolektibo horrentzako enplegu babestua daukaten 22 erakunde daude identifikaturik mapan, eta haietatik hamabik erantzun dute; hau da, % 54,5 inguruk.

Pertsona-bolumenari erreparatzen baldin badiogu, kalkulatu da **gaixotasun mentala duten 803 pertsona inguru artatu direla 2015ean, parte hartu duten enplegu babestuko baliabideren baten bidez. Horien % 65ek plaza bat betetzen dute enplegu-zentro berezian; kasuen % 28,6 lan-eremu batean izaten dira, eta % 6,5 baino ez brigada mugikor batean. Erakunde motaren arabera, ikusten da enplegu-zentro berezi baten bidezko enplegua formula askoz ere ohikoagoa dela gaixotasun mentaletan espezializatutako erakundeetan (% 86,6). Kolektiboan espezializatu gabekoetan ere, formula hori da ohikoena, nahiz eta horien ehunekoa nabarmen txikiagoa izan (% 60,5). Halaber, areagotu egiten da beste formula batzuen garrantzia, hala nola lan-eremua (% 32,1, eta espezializatueta, berriz, % 11,2).**

Beste baliabide batzuetan ez bezala, **enplegu babestuko baliabideetan dihardutenen % 16,7 bakarrik ari dira gaixotasun mentalean espezializatutako erakunde batean.**



2015ean...	Guztira	GMan espezializatutako erakundeak	GMan espezializatu gabeko erakundeak
Enplegu babestua duten pertsonak orotara	803	134	564
Brigada mugikorak	% 6,5	% 2,2	% 7,3
Lan-eremua	% 28,6	% 11,2	% 32,1
Gaixotasun mentala duten erabiltzaileak enplegu-zentro berezietan	% 64,9	% 86,6	% 60,5

Enplegu-zentro berezien bidezko enplegu babestuari bakarrik erreparatuz, **ikusten da 2015ean guztira gaixotasun mentala duten 521 pertsonak izan zutela plaza baliabide horietan. Gehienak (% 62,8) gizonaek dira. Plaza horien % 22,3 bakarrik kudeatzen ziren gaixotasun mentaletan espezializatutako erakunde bidez.**

Bestalde, nabarmendu behar da gaixotasun mentala duten pertsonak **espezializatu gabeko erakundeetako enplegu-zentro berezietan enplegu babestua duten pertsonen % 17,85 direla, kontsultatutako erakundeetan.**


2015ean enplegu-zentro berezietan...	Guztira	GMan espezializatutako erakundeak	GMan espezializatu gabeko erakundeak
Gaixotasun mentala duten erabiltzaileak enplegu-zentro berezietan	521	116	405
Gaixotasun mentala duten erabiltzaileen ehunekoa, enplegu-zentro berezietako erabiltzaileen guztizko kopuruaren barnean	-	% 100	17,85
Gaixotasun mentala duten gizonezkoak enplegu-zentro berezietan	% 62,8	% 69	% 67,4
Gaixotasun mentala duten emakumezkoak enplegu-zentro berezietan	% 37,2	% 31	% 32,6

% 22,3


Kontsultatutako erakundeetako bostek adierazi dutenez, erakundeko enplegu-zentro berezi batean plaza eskatu eta plaza hori eman bitarteko epea **sei hilabete baino laburragoa da**. Hiruk baieztatu dutenez, epe hori sei hilabete eta urtebete bitartekoa da, eta haietako batek, azkenik, adierazi du urtebete baino gehiago itxaron behar dela.

Bestalde, hauxe nabarmendu behar da: sei erakundek adierazi dute **itxaron-zerrenda** dutela enplegu-zentro berezian sartzeko. Haietatik bik esan dute zerrenda hori erakundeak dituen lanerako zentroren batean bakarrik existitzen dela, eta bakar batek adierazi du ez duela itxaron-zerrendarik.

Gutxi gorabehera, zenbat itxaron behar da batez beste zure erakundeko enplegu-zentro berezi batean plaza eskatu eta plaza hori eman arte?




Gaur egun, bada itxaron-zerrendarik zure erakundeak kudeatutako enplegu-zentro berezietara sartzeko?




Lanbide-baliabideak eskaintzen dituzten erakundeetatik zortzi kontsultatu ditugu, eta horietatik bostek (% 56) adierazi dute erakunde horietako enplegu-zentro berezietako profesionalak badutela prestakuntza espezifiko gaixotasun mentala duten pertsonen kolektiboari buruz. Haietatik lautan, berriz, azaldu dute

trebatzaile guztiek ez dutela prestakuntza espezifikoa, baina batzuek baietz.


Hala eta guztiz ere, erakunde guztiek adierazi dute kolektiboari enplegu-zentro bereziak eskaintzen dizkioten pertsona guztiek sumatu dutela noizbait prestakuntza hobea falta izan zaiela gaixotasun mentala duten pertsonen kolektiboari buruz. Hain zuzen ere, erakunde horietako lauk adierazi dute hala izan dela dezentetan edo askotan.



Zure erakundeko enplegu-zentro berezietako trebatzaileei dagokienez, badute prestakuntza espezifikorik gaixotasun mentala duten pertsonen kolektiboaren inguruan?




Zure erakundeko enplegu-zentro berezietan diharduten profesionalak, sentitu al dute inoiz gaixotasun mentala duten pertsonen inguruko prestakuntza hobea jaso beharko luketela?



Enplegu-zentro babestuak eta osasun mentaleko zentro-sarearen arteko koordinazioari gagozkiola, adierazi behar da erakundeen erdien ustez koordinazio hori jarraitua eta arina dela. Hiru erakundetatik batek, berriz, jakinarazi dute koordinazioa unean unekoa dela eta, eskuarki, lanerako zentroak edo osasun mentaleko zentroak beharrezkotzat jotzen dutenean gertatzen dela. Erakunde batek, azkenik, adierazi du ez dagoela koordinaziorik osasun mentaleko zentro-sarearekin.

Zure ustez, zer-nolakoa da zure erakundeko enplegu-zentro bereziko profesionalen koordinazioa osasun mentaleko zentro-sarearekin, gaixotasun mentala duten erabiltzaileei dagokienez?



Kontsultatu ditugun gaixotasun mentalean espezializatu gabeko bi erakundetatik batek adierazi duenez, kolektibo horrek erakundeko lanbide-baliabideetan duen absentismoa handiagoa da gainerako kolektiboena baino; gainerakoek, berriz, esan dute tasa hori berdina dela zentrora jotzen duten gainerako kolektiboen tasarekin alderatuta.

Halaber, nabarmentzekoa da erakunde horietatik biren hitzetan ekintzaren bat martxan ipini dutela kolektiboaren absentismo-tasa murrizten saiatzeko. Zehazki, ekintza horiek gehiago daude lotuta ordutegi-malgutasunarekin, familien koordinazioarekin eta plan pertsonalekin.


Zure erakundeko enplegu-zentro bereziei dagokienez, zenbaterainokoa da lan-absentismoa gaixotasun mentala duten pertsonen artean?



(*) Gaixotasun mentala duten pertsonekin ez ezik, beste kolektibo batzuekin ere lan egiten duten erakundeek bakarrik erantzuten dute.

Ohikoa izaten da erakundeek plaza gordetzea gaixotasun mentala duen pertsona bati iraupen luzeko bajen edo ohiko bajen kasuan, gaixotasun mentalaren ondorioz gertatzen badira (hala gertatzen da kontsultatutako zortzi erakundetatik bostetan). Bi erakundek adierazi dutenez, plaza-erreserba kasu jakin bakoitzaren arabera izaten da; erakunde batek, azkenik, adierazten du ez dela plaza erreserbatzen halakoetan.

Zer gertatzen da zure erakundeko enplegu-zentro berezietako plazarekin, gaixotasun mentala duen norbaiti iraupen luzeko baja medikoak eta/edo baja medikoak maiz aitortzen zaizkionean, duten gaixotasun mentala dela eta?



Kontsultatutako hiru erakundek adierazi dute egiten dituztela aldiari aldiari enplegu-zentro berezietako bezeroak sentsibilizatzeko ekimenak, eta beste hiruk esan dute noizean behin egiten dituztela. Haietako bik aitortu dute eskuarki ez dutela halako ekimenik egiten bezeroekin.


Garatzen al du zure erakundeak ekimenen bat –jarduerak, ekintzak, programak, etab.– enplegu-zentro bereziko bezeroak gaixotasun mentalaren inguruan sentsibilizatzeko?



2015ean, **kontsultatutako erakundeetatik gaixotasun mentala duten zazpi pertsona igaro dira enplegu-zentro berezi batetik enplegu arrunt batera (babesarekin edo gabe).**


Ez da ikusi alderik erakunde motaren arabera, eta ezaugarri horiek dituzten trantsizio-ehunekoa oso antzekoa da gaixotasun mentaletan espezializatutako erakundeetan (% 1,72) eta espezializatu gabekoetan (% 1,65).

2015ean zehar, gaixotasun mentala duten zenbat pertsona igaro dira, gutxi gorabehera, enplegu zentro berezi batetik enplegu arrunt batera, laguntzarekin edo gabe (zure erakundean edo handik kanpo)?



Azkenik, bada nabarmendu beharreko beste puntu bat: kontsultatutako erakunde gehienek adierazten dutenez, **enplegu-zentro berezietako jarduera hobeto egokitzen da gaixotasun mentala duten pertsonen beharrian espezifikoetara**. Aldiz, erakunde horietako bakar batek baino ez du adierazi jarduera guztiak ez direla egokitzen beharrian horietara, nahiz eta batzuk egokitzen diren.

Zuen erakundean, zenbateraino da ohikoa gaixotasun mentala duten pertsonen enplegu-zentro berezietan dituzten lanpostuak pertsona horien beharrian espezifikoetara egokitzea?



Hona hemen aipatzen diren egokitzapen nagusiak:

- ✓ Orduategiak eta jardunaldiak langileen ezaugarrietara egokituta daude (txanda gabeko jardunaldiak, orduategien malgutasuna, lanaldia murriztea, egitekoen arteko atsedena...).
- ✓ Segimendu jarraitua, eta koordinazio oparoa osasun mentaleko sarearekin.
- ✓ Pertsonaren gaitasun eta ahalmenak kontuan hartuta hautatzen da

Enplegu arrunt lagundua
5 erantzun
ASAFES
Eragintza
Lantegi Batuak
Gureak Taldea
Entremanos

postua.

- ✓ Arreta eskaintzen zaie zahartze-prozesuei.
- ✓ Lan berean ematen duen denbora mugatzea.
- ✓ Lan-kargak egokitzea.
- ✓ Prozesuak sekuentziazatzea.
- ✓ Prestakuntza-prozesuak.
- ✓ Profesionalen babes puntualak.
- ✓ Egin ditzaketen lan motak.
- ✓ Premia indibidualei erantzutea (adibidez, askotariko

erraztasunak tratamendu-zentroetara joan daitezen).

4.6. Enplegu lagundua

Enplegu lagundua laneratzeko eredu bat da, eta haren oinarria zera da, enpresa arrunten barnean erkidegoan integratutako enplegua sortzea desgaitasuna duten pertsonentzat, lantokiaren barruan eta handik kanpora behar duten babesa emanez.

Uztailaren 2ko 870/2007 Errege Dekretuaren 2. artikulua dioenez (laguntzazko enplegu-programa arautzen duena, lan-merkatu arruntean desgaitasuna duten pertsonen enplegua sustatzeko), honela ulertzen da enplegu arrunt babestua: «Lanpostuan antolatutako orientazio- eta laguntza-ekintzen multzoa, langile espezializatuak eskainia, zeinaren helburua baita desgaitasuna duten langileen egokitzapen soziala eta laborala erraztea, merkatu arrunteko enpresetan laneratzeko zailtasun bereziak izaten dituzten aldetik, betiere tankerako postuak betetzen dituzten gainerako langileen baldintza antzekoak eskainiz».

Kolektibo horrentzako enplegu lagundua daukaten 9 erakunde daude identifikaturik mapan, eta horietako bostek erantzun dute; hau da, % 55,5 inguruk.



2015ean...	Guztira	GMan espezializatutako erakundeak	GMan espezializatu gabeko erakundeak
Gaixotasun mentala duten pertsonen laneratzeari	63	48	15
Gaixotasun mentala duten pertsonen laneratzeari ehunekoa, guztizko laneratzeari kopuruaren barnean	-	100	% 20,5
Gaixotasun mentala duten gizonen laneratzeari	% 69,8	% 81,3	% 33,3
Gaixotasun mentala duten emakumeen laneratzeari	% 30,2	18,8	% 66,7
Gaixotasun mentala duten pertsonen laneratzeari, lanaldi osoan	% 34,9	% 31,3	% 46,7
Gaixotasun mentala duten pertsonen laneratzeari, lanaldi partzialean	% 65,1	% 68,8	% 53,3


Pertsonen bolumenari erreparatu, kalkulatu da 2015ean **gaixotasun mentala duten 63 pertsonak eskuratu duela enplegu lagunduren bat**. Gehienak **gizonak** dira (% 69,8), eta gehienetan gaixotasun mentala duten pertsonetan espezializatutako erakunde bidez (% 76,2). Hiru laneratzetatik bi lanaldi partzialean izaten dira, nahiz eta halako jardunaldiek ohikoagoak diruditen gaixotasun mentala duten pertsonen kolektiboan espezializatutako erakundeetan.

Bestalde, nabarmendu behar da gaixotasun mentala duten pertsonak **% 20,5 direla espezializatu gabeko erakundeetako enplegu lagunduetan, kontsultatutako erakundeen kasuan**.

Kontsultatutako erakunde gehienek adierazten dute enplegu lagunduko programan parte hartzen duten profesional guztiek dutela prestakuntza espezifiko, gaixotasun mentala duten pertsonen kolektiboari dagokionez. Haietatik batek, berriz, azaldu du trebatzaile guztiek ez dutela prestakuntza espezifiko, baina batzuek baietz.

Erakunde % 100ek adierazten du enplegu lagunduko programako profesionalek sumatu dutela prestakuntza-premia kasuren batean behintzat, gaixotasun mentala duten pertsonen kolektiboarekin lotuta.

Zure erakundeko enplegu lagunduko programan parte hartzen duten profesionalei dagokienez, badute prestakuntza espezifikorik gaixotasun mentala duten pertsonen kolektiboaren inguruan?



Gaixotasun mentalean espezializatu gabeko hiru erakundeetatik bik adierazi dutenez, absentismoa berbera da enplegu-programan parte hartzen duen kolektiboan eta zentrorra jotzen duten gainerako kolektiboetan. Batek, ordea, adierazi du handiagoa dela absentismoa kolektibo horretan gainerakoetan baino.


Zenbaterainokoa da absentismoa gaixotasun mentala izanik zure erakundearen enplegu lagunduko programan parte hartzen duten pertsonen artean?



(*) Gaixotasun mentala duten pertsonekin ez ezik, beste kolektibo batzuekin ere lan egiten duten erakundeek bakarrik erantzuten dute.


Kontsultatutako erakundeek erdiek adierazi dute plaza gordetzen diotela gaixotasun mentala duen pertsona bati iraupen luzeko baja eta/edo ohiko baja kasuan, gaixotasun mentalaren ondorioz gertatzen badira baja horiek. Beste erdien hitzetan, berriz, kasuaren arabera erabakitzen dute plaza gorde ala ez.

Zer gertatzen da gaixotasun mentala duen pertsona batek zure erakundearen enplegu lagundurako programaren bidez betetzen duen postuarekin, gaixotasun mentala dela-eta iraupen luzeko baja edo ohiko baja aitortzen zaionean pertsona horri?



Kontsultatutako erakundeek artean, ohikoa da sentsibilizazio-jarduerak edo -ekimenak egitea gaixotasun mentala duten pertsonak sartzen diren inguruneetan (halako bost erakundetatik lautan). Erakunde batek baino ez du adierazi ez dutela halako ekimenik egiten.

Garatzen al du zure erakundeak ekimenen bat - jarduerak, ekintzak, programak, etab.- gaixotasun mentala duten pertsonak biltzen dituzten ohiko lan-inguruneak sentsibilizatzeko?



Erakundeek % 100ek adierazten dutenez, gaixotasun mentala duten pertsonen enplegu lagunduko programaren bidez betetzen dituzten lanpostuak egokituta daude haien premia espezifikoetara, neurri handi batean behintzat. Hona hemen aipatzen diren egokitzapen nagusiak:


- ✓ Ordutegiak eta jardunaldiak (txandarik gabe, lanaldi partzialak, gaueko txanda kentzea, mediku-bisitak egiteko denbora ematea ordu horiek berreskuratzeko aukerarekin, eta abar).
- ✓ Etxetik gertu egotea.
- ✓ Postu espezifikoak sortzea.
- ✓ Pertsonaren curriculumaren eta gaitasunen arabera ondoen egokitutako lanpostua bilatzea.
- ✓ Enpresarekin etengabeko bitartekaritza-lanak egitea postuan mantentzeko.
- ✓ Egitekoak egokitzea (sinplifikatzea, berrantolatzea, sekuentzia aldatzea, estresa sortzen duten puntuak eta erabakiak hartzeko puntuak minimizatzea, eta abar).

Gaixotasun mentala izanik enplegurako baliabideetan artatu diren pertsonen barnean galdetegiari erantzun diotenak.

Informazioa eta orientazioa	Prestakuntza	Lanbide-zerbitzua	Enplegu babestua	Enplegu arrunta (lagundua)	GUZTIRA
550	801	139	803	63	2356



Gaixotasun mentala izanik enplegu-baliabideen erabiltzaile diren pertsonen proportzioa, erakunde motaren arabera:



Gaixotasun mentala izanik, lanbide-baliabideetan, enplegu babestuan eta enplegu lagunduan artatutako pertsonen guztizkoa

Lanbide-zerbitzua	Enplegu babestua	Enplegu lagundua
139	803	63

Gaixotasun mentala duten 1.005 pertsona ZOn, EB o EAn

BIZKAIA

LANBIDE-ZERBITZUA: 90
ENPLEGU BABESTUA: 320
ENPLEGU LAGUNDUA: 21



GIPUZKOA

LANBIDE-ZERBITZUA: 0**
ENPLEGU BABESTUA: 105
ENPLEGU LAGUNDUA: 12

ARABA

LANBIDE-ZERBITZUA: 49
ENPLEGU BABESTUA: 178
ENPLEGU LAGUNDUA: 30

(*) Ez dira bildu Grupo SIFUko enplegu-zentro berezietako pertsonak; izan ere, badakigu zenbat plaza diren, baina ez nola dauden banatuta lurralde historikoen artean.

(**) Gogoratu behar da Gureak Taldeak –Gipuzkoan desgaitasuna duten pertsonen enplegu babestua emateko erakunde nagusietako batek– ez duela informaziorik eman lanbide-plazaren kopuruari buruz; hortaz, nolabaiteko informazio-falta dago lurralde horretan. Kontuan hartuko da datuen bat berriro eskatu behar ote den, mapa osatzeko.

5. ARRAKASTA-FAKTOREAK EDO - GAKOAK, GAIXOTASUN MENTALA DUTEN PERTSONAK LANERATZEARI DAGOKIONEZ

Arrakasta-faktoreak edo gakoak, gaixotasun mentalak dituzten pertsonak laneratzeari dagokionez

Gaixotasun mentala duten pertsonen kolektiboa laneratzea errazten duten arrakasta-elementuei dagokienez, honako auzi hauek nabarmendu ziren:

- ✓ **Laguntza indibidualizatuen sare** bat egotea laneratze-ibilbide osoan zehar.
- ✓ Ahal den neurrian, lan-eskaintza **gaixotasun mentala duten pertsonen beharrian, ezaugarri eta lehentasunetara** egokitzea. Egokitzapen hori bereziki garrantzitsutzat jotzen da laneratze-prozesua hasteko orduan.
- ✓ Kolektiboarekin laneratze-prozesuan zehar esku hartzen duten profesionalekin **lankidetzan jardutea** (enpleguaren eta osasunaren alorrekoak eta abar).
- ✓ **Gaixotasun mentala duten pertsonen konpromisoa eta motibazioa** laneratze-prozesuarekin.
- ✓ Gaixotasun mentala duten pertsonen **gogobetetzea** postuarekin.
- ✓ **Profesional taldeen konpromisoa eta inplikazioa** gaixotasun mentala duten pertsonen laneratze-ibilbideekin.
- ✓ **Gizartearen sentsibilizazioa** gaixotasun mentala duten pertsonen kolektiboarekin eta pertsona horiek duten **estigmaren kontrako borroka**ekin.

6. GAIXOTASUN MENTALA DUTEN PERTSONEN KOLEKTIBORAKO LANERATZE-BALIABIDEEN ESKAINTZA HOBETZEKO ERRONKA NAGUSIAK

Kolektiborako laneratze-baliabideen eskaintza hobetzeko erronka nagusiak

Ondoren, kolektiborako laneratze-baliabideen eskaintza hobetzeko erronka nagusiak aurkezten dira:

Arreta-ereduari dagokionez

Gaixotasun mentala duten pertsonen kolektiboari arreta emateko baliabideak malgutzen jarraitzea, bi norabideetako bideak erraztuz eta, beharrezkotzat jotzen denean, aurrera edo atzera egiteko modua ahalbidetuta.

Gaur egun, «zurrunegiak» dira enplegurako baliabideetara jotzeko eskakizunak, eta ez dute errazten «joan-etorriko» bideak egitea, baliabide berriak probatzeko,

baliabide bateko plaza bat lanaldi murritzuekin bateragarri egiteko eta abar. Sistema zurrunezia da, eta ez da gauza kolektibo horren premietara egokitzeko; izan ere, maiz krisi-gertakariak izaten dituzte –nahiz eta ondoren berehala berroneratu–, baita gorabeherak eta bestelako inguruabarrak ere.

Kolektiboarekin esku hartzen duten profesionalen taldeen eta kolektiboaren arteko lankidetzaren sustatzea, laneratze-prozesu osoan zehar.

Ezinbestekoa da osasun-esparruko, alor sozialeko, lan-esparruko eta beste hainbat eremutako profesionalak elkarrekin lankidetzan eta koordinazioan aritzea pertsona baten lan-ibilbideko fase guztietan, prozesu horrek emaitza egokia izan dezan.

Enplegurako baliabideei dagokienez

Gaixotasun mentala duten pertsonen mugimendu gehiago ahalbidetzea enplegu-baliabide arruntetara.

Azken urteetan aurrerapausoak eman badira ere gaixotasun mentala duten pertsonen kolektiboaren laneratzearen alde, oraindik jarduera-tasa apala du kolektibo horrek; horregatik, beharrezkoa dirudi lanean jarraitzea horrelako pertsonen laneratzea lortzeko. Gainera, baliabideen mapa osatzen duten laneratze-baliabideen analisiak agerian uzten duenez, oso txikia da oraindik ere merkatu arruntean lanpostuak eskuratzen dituzten pertsonen proportzioa. Hori dela eta, erronka partekatua da lanpostuak sortzea lan-merkatu arruntean pertsona horientzat.

Ezegonkortasun- edo gaixoberritze-garai baten ondoren lanpostura itzultzeko prozesua prestatzea.

Aipatu dugun bezala, gaixotasun mentala duten pertsonen krisialdiak –geroago lehengoratzeko direnak– izaten dituzte maiz, baita gorabeherak eta antzeko egoerak ere. Lan-merkatuko «joan-etorri» horien ondorioz, garrantzitsutzat jotzen da gaixotasun mentala duen pertsona aldi horietako baten ondoren berriro ere lanean hasteko baldintza egokiak sortzea.

Gaixotasun mentala duten pertsonen lortutako lanpostuen dibertsifikazioa sustatzea.

Gaur egun, gaixotasun mentala duten pertsonen izan ohi dituzten lanpostuak ez dira oso ondo ikusita egoten gizartearen eta prestakuntza-maila txikikoak izaten dira; hori dela eta, beharrezkoa litzateke ahalaz handiagoa egitea pertsona horien prestakuntza eta jakintza sustatzeko.

Esperientzia berritzaileak bilatzeko bidean aurrera egitea, kolektiboaren enplegurako bide berriak ikertzea ahalbidetzeko aldera.

Gaixotasun mentala duten pertsonentzako enplegua, askotan, balio erantsi

apaleko sektoreetan gertatzen da, gizartean oso ondo ikusita ez dauden sektoreetan, alegia. Testuinguru horretan, kontratazio-bide berriak topatzea (gaixotasun mentalak dituzten pertsonen martxan ipinitako kooperatibak, autoenplegua, enplegu-nitxo berriak eta abar) aukera ona izan liteke kolektiboarentzat.

Enplegua funtsezko tresna gisa aldarrikatzea, gaixotasun mentala duten pertsonak erabat birgaitzeko prozesuan.

Enpleguaren bidez beharizan ekonomikoak asetzen dira baina, horrez gainera, pertsonen bizi-kalitatea hobetzen eta aberasten duten bestelako jardura paralelo ugari ere zabaltzen dira. Lana osagai garrantzitsua da pertsonen gizarteratzean eta bizi-denboraren egituratzean; hala, laneratzea gizarteratze-modu gisa ere har dezakegu, bereziki lan-merkatuan parte hartzeko zailtasunak dituzten pertsonen kasuan –hala nola gaixotasun mentalak dituzten pertsonen kolektiboa–.

Gaixotasun mentala duten pertsonen prestakuntza areagotzea.

Gaixotasun mentala duten pertsonen prestakuntza funtsezkotzat jotzen da kolektiboak enplegua eskuratzeko. Gaixotasun mentala duten pertsonen prestakuntza-maila areagotuz, lanerako gaikuntza hobetzeaz gain, minimizatu egin daitezke enpresek kolektibo horrekin izan ohi dituzten errezeloak, lantaldeetan halako pertsonak hartzeari dagokionez. Hainbat pertsonak aipatzen dute garrantzitsua dela prestakuntza hori pertsonen interesetara eta gaitasunetara egokitzea.

Administrazio publikoari dagokionez

Berariaz gaixotasun mentala duten pertsonen kolektiborako enplegu babestuko plazen kopuru espezifikoa areagotze enplegu-baliabide batzuetan eta besteetan (lanbide-zerbitzuak, enplegu-zentro bereziak eta enplegu arrunta).

Kolektibo horrentzako plazen kopurua areagotzea da prozesu honetan esku hartzen duten eragile guztiek duten erronka komunitario bat. Berariaz nabarmentzen da kalteberatasun-faktore bat baino gehiago lotzen dituzten kasuei arreta berezia ipini behar zaiela (adibidez, adineko pertsona batek nahasmendu mental larria izatea), halakoek baitituzte zailtasunik handienak lan-merkatura jotzeko.

Administrazio publikoa sartzea erantzukizun sozialean oinarritutako kontratazioetan.

Funtsezkoa da administrazio publikoak desgaitasuna duten pertsonen kontratazioan parte hartzea eta adibidea ematea.

Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-zentro berezi berrien sorkuntza eta

erregistroa arautzeko dekretua onartzea, enpleguaren alorreko ekimenen egonkortasuna eta jarraitutasuna bermatze aldera.

Orain dela urte batzuetara arte, INEMek kudeatzen zuen enplegu-zentro berezien sorkuntza eta erregistroa. Baina, enplegu-politika aktiboak eskualdatu zirenetik, LANBIDE arduratzen da egiteko horietaz. Halere, Euskadik ez du legeria propiorik horretarako. Hori dela medio, enplegu-zentro bereziak sortzeko ekimenak ezin dira garatu, ez baitago horretarako legeriarik.

Kolektiboa ordezkatzeko duten erakundeei dagokienez

Foroetan kolektiboa ordezkatzeko duten erreferenteak identifikatzea eta solaskide-rola hartzea beste gizarte-eragile batzuekin.

Gizarte-egoera okerragoan dauden beste kolektibo batzuekin gertatzen den bezala, ezinbestekoa da erreferenteak identifikatzea gaixotasun mentalak dituzten pertsonen kolektiboaren barruan, solaskide gisa jardun dezaten kolektiboaren eta beste eragile batzuen –hala nola administrazio publikoaren, enpresen eta abarren– artean.

Gaixotasun mentala duten pertsonen kolektiboarekin esku hartzen duten erakundeek foroak edo erakundeak sare bat sortzea enplegu-esparruan.

Topaguneen sorkuntza sustatzea, eraginpeko agenteek lan-alorreko jakintza, esperientziak eta jardunbide onak parteka ditzaten.

Gaixotasun mentala duten pertsonen kontratazioa sustatzea kolektibo honekin esku hartzen duten erakundeak barruan.

Administrazio publikoarekin bezalaxe, kontuan hartzen da gaixotasun mentala duten pertsonak artatzen dituzten erakundeek eredu garri izan behar dutela kontratazio arduratsuen esparruan, eta horregatik, kolektiboko pertsonak sartu behar dituztela plantilletan.

Gaixotasun mentala duten pertsonen kolektiboarentzat laneratze-baliabideak jakitera ematea.

Garrantzitsua dirudi laneratze-baliabideak eta haien ahalmena jakitera ematea (ez lanpostuak sortzearekin lotutako jardueragatik bakarrik, baizik eta jardura horren ondorioz sortzen diren aukerengatik ere bai) dela gizartean (orokorrean) dela gaixotasun mentala duten pertsonen artean (zehazkiago).

Komunikabideei dagokienez

Gaixotasun mentala duten pertsonen kolektiboa komunikabideetan bistaratzen eta normalizatzen aurrera egitea.

Komunikabideek egiteko biziki garrantzitsua daukate aurreiritziak eta

estereotipoak transmititzen. Hori dela eta, funtsezkoa da komunikabideek laguntzea kolektiboari buruzko irudi sozial positiboa ematen eta kolektiboko pertsonen inguruan maiz izaten diren ideia okerrak eta aurreiritziak erauzten.

Laguntza-sare informalarri dagokionez

Familiak inplikatzeko gaixotasun mentala duten senideak laneratzeko prozesuetan.

Familia funtsezko zutaina da edozein pertsona lan-munduan sartzeko prozesuan, bereziki, gaixotasun mentala duten pertsonen kasuan. Berezi garrantzitsua da haien presentzia lan-merkatu jotzeko zailtasunak dituzten pertsona nagusien kasuan (trastorno mental larria, adineko pertsonak...). Nolanahi ere, nabarmendu behar da garrantzitsua dela kasu bakoitzean familiaren egitekoa zehaztea senitartekoa laneratzeko prozesuan (noraino iristen den familiaren inplikazioa, zer-nolakoa izan behar duen laguntza, zer unetan inplikatu behar duen, etab.).

7. BIBLIOGRAFIA

GAIXOTASUN MENTALA DUTEN PERTSONEN ETA HAIEN SENIDEEN ESPAINIAKO KONFEDERAZIOA (FEAFES): *Salud mental y Medios de Comunicación. Guía de Estilo*. Madril: Gaixotasun Mentala duten Pertsonen eta haien Senideen Espainiako Konfederazioa (FEAFES), 2003.

OSASUNAREN MUNDU-ERAKUNDEA (OME): *Informe sobre la salud en el mundo 2001. Salud mental: nuevos conocimientos, nuevas esperanzas*. Geneva: Osasunaren Mundu Erakundea (OME), 2001.

EUSKO JAURLARITZA. LANBIDE, ENPLEGURAKO EUSKAL ZERBITZUA. Lanbideren Plan Estrategikoa 2013-2016. Eusko Jaurlaritza. Lanbide, Enplegurako Euskal Zerbitzua. Gasteiz, 2013.

EUSKO JAURLARITZA. Enplegu Plana 2014-2016. Eusko Jaurlaritza: Gasteiz, 2013.

EUSKO JAURLARITZA. ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA. Enpleguaren Euskal Estrategia 2020. Eusko Jaurlaritza. Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Gasteiz. 2016.

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. Gizarte Ekintza Saila. *Bizkaian desgaitasuna duten pertsonen parte-hartzerako eta bizi-kalitaterako plana* (2016-2019) Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia, Gizarte Ekintza Saila, 2016.

ESTADISTIKA INSTITUTU NAZIONALA (EIN): *El empleo de las personas con discapacidad*.

BAREA TEJEIRO, J. eta kol. *Economía social e inserción laboral de las personas con discapacidad en el País Vasco*. BBVA Fundazioa, 2008.

Espainiako Gobernua. 13/1982 Legea, apirilaren 7koa, Minusbaliatuak Gizarteratzeari buruzkoa (LISMI).

290/2004 Errege Dekretua, otsailaren 20koa, enplegua sustatzeko neurri gisa lantokiak arautzen dituen.

23/1988 Legea, uztailaren 28koa, Funtzio Publikoaren Erreformatarako Neurriei buruzko abuztuaren 2ko 30/1984 Legea aldatzekoa.

870/2007 Errege Dekretua, uztailaren 2koa, laguntzazko enplegu-programa arautzen duena, lan-merkatu arruntean desgaitasuna duten pertsonen enplegua sustatzeko.

2274/1985 Errege Dekretua, abenduaren 4koa, desgaituentzako lanerako zentroak arautzen dituen.

I.ERANSKINA:**A) Gaixotasun mentala duten pertsonentzako baliabideen mapan jasotako erakundearen fitxak**

ASAFES – Buru Gaixotasuna duten Pertsonen eta Senideen Arabako Elkartea	
ERAKUNDEAREN SAILKAPENA	
KOKAPENA	Gasteiz (ARABA)
KOLEKTIBOA	Gaixotasun mentala duten pertsonak
ERAKUNDE MOTA	Irabazi-asmorik gabeko erakundea
TITULARTASUNA	Pribatua
JARDUERA NAGUSIA	Baliabideen eskaintza askotarikoa, hala nola lan-baliabideak.
ENPLEGURAKO ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUAK	Prestakuntza-zerbitzua Lanbide-zerbitzua Enplegu babestua: RAEP enplegu-zentro berezia Enplegu arrunta: PILA programa
HARREMANETARAKO DATUAK	
HARREMANETARAKO PERTSONA	Justi Gestoso (enplegu-teknikaria) / Endika Minguella (enplegu-zentro bereziko arduraduna)
HELBIDEA	Amadís 2 (Blas de Oterotik sartuz) (egoitza nagusia)
TELEFONOA	945 28 86 48
EMAILA	asafes@asafes.org / empleo1@asafes.org / raep@asafes.org /
WEBGUNEA	http://www.asafes.org/weus/index.asp
ERAKUNDEAREN DESKRIBAPEN LABURRA	ASAFES irabazi-asmorik gabeko erakunde bat da, 1998an erabilgarritasun publikoko deklaraturia. Gaixotasun mentala duten pertsonen eta osasun mentaleko profesionalen ekimenez sortu zen 1976an. Erakundearen egitekoa gaixotasun mentala duten pertsonen bizi-proiektu integral eta indibidualizatu bat bideragarri egitea da, etorkizunera, integrazioa eta normalizazioa begira, baita bizi-kalitatea hobetzera ere. Horretarako, ahalik eta gehien sustatzen eta bultzatzen du halako pertsonen ahalmenak. Enpleguari dagokionez, elkarteak baratzezaintza eta lorezaintzako lanbide-programa bat du, arreta nekazaritza ekologikoan ipintzen duena. Hala, RAEP enplegu-zentro bereziak hainbat esparru profesionaletan ematen ditu zerbitzuak: garbiketa, lorezaintza, basoberritzea, artisautza, nekazaritza-ekoizpena, muntaketa mekaniko eta elektronikoak eta prentsa-salmenta.

ASASAM – Gaixotasun Mentala duten Pertsonen eta Senideen Aiarako Elkartea	
ERAKUNDEAREN SAILKAPENA	
KOKAPENA	Laudio (ARABA)
KOLEKTIBOA	Gaixotasun mentala duten pertsonak
ERAKUNDE MOTA	Irabazi-asmorik gabeko erakundea
TITULARTASUNA	Pribatua
JARDUERA NAGUSIA	Baliabideen eskaintza askotarikoa, hala nola lan-baliabideak.
ENPLEGURAKO ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUAK	- Lanbide-zerbitzua
HARREMANETARAKO DATUAK	
HARREMANETARAKO PERTSONA	Josune Larreategi (psikologoa)
HELBIDEA	Hiru Gurutzeta 14, 1. Arza pab. (egoitza nagusia)
TELEFONOA	94 404 55 64 / 94 655 10 88
EMAILA	sociolaboral@asasam.org
WEBGUNEA	http://www.asasam.org/es
ERAKUNDEAREN DESKRIBAPEN LABURRA	ASASAM gaixotasun mentala duten pertsonaz, horien senidez, profesionalaz, boluntarioz eta bazkidez osatutako elkarte bat da, eta guztiek leku osasungarri bat sortzeko ilusioz dihardute, gaixotasun mentala duten pertsonen garapen indibiduala eta kolektiboa lortzeko bidean. Gaur egun, osasun mentalaren hobekuntzari ekarpen aktiboa egitea da erakundearen egitekoa; hori hala, gaixotasun mentala duten pertsonen autonomia pertsonala hobetzen, bizi-kalitatea areagotzen eta gizarteratzea sustatzen dihardu. Enpleguari dagokionez, elkarteak manufaktura-lanetan aritzeko aukera eskaintzen die gaixotasun mentala duten pertsonen lanerako zentroan, baratze ekologikoa zainduz.

ERAGINTZA FUNDAZIOA	
ERAKUNDEAREN SAILKAPENA	
KOKAPENA	Bilbo (Bizkaia)
KOLEKTIBOA	Gaixotasun mentala duten pertsonak
ERAKUNDE MOTA	Irabazi-asmorik gabeko erakundea
TITULARTASUNA	Pribatua
JARDUERA NAGUSIA	Lan-baliabideen eskaintza
ENPLEGURAKO ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUAK	Informazioa eta orientazioa Prestakuntza-zerbitzua Lanbide-zerbitzua Enplegu babestua: Enplegu-zentro berezia (Lavanindu) Enplegu arrunta: Enplegu lagundua
HARREMANETARAKO DATUAK	
HARREMANETARAKO PERTSONA	Eneritz Bengoetxea (Programen zuzendaria)
HELBIDEA	Iruña 17 behea (egoitza nagusia)
TELEFONOA	944 23 16 93
EMAILA	eragintza@eragintzafundazioa.eus
WEBGUNEA	http://www.eragintzafundazioa.eus/eu/
ERAKUNDEAREN DESKRIBAPEN LABURRA	Eragintza Fundazioa irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta gaixotasun mentala duten pertsonak lanean eta gizartean txertatzea du helburu. Erakundeak gaixotasun mentala duten pertsonen aldeko zerbitzuak emateko eginkizuna du: gaitasunak garatzea, lan-munduan sartzea, enpleguari eusten laguntzea eta partaidetza autonomia gizartean. Partaidetzaren eta bizi-kalitatearen eremuan oinarrituta, pertsonak ardatz dituen erakundea da, irekia, berritzailea, elkarlanekoa eta adimentsua, eta gauza da bikaintasunean hazteko, profesionaltasunari, zerbitzuei eta kudeaketari dagokienez. Erakundeak lanerako lau zentro ditu (kableak jartzea, koadernatzea, lorezaintza eta garbitegia), baita enplegu-zentro berezi bat ere (Lavanindu), zeinak garbitegi industrialeko ekonomia- eta ekoizpen-jarduera garatzen baitu. Horrez gain, kolektibo hori lan-merkatu arruntean txertatzeko talde espezializatu bat ere badu.

ARRAZTALO ELKARTEA	
ERAKUNDEAREN SAILKAPENA	
KOKAPENA	Oiartzun (Gipuzkoa)
KOLEKTIBOA	Gaixotasun mentala duten pertsonak
ERAKUNDE MOTA	Irabazi-asmorik gabeko erakundea
TITULARTASUNA	Pribatua
JARDUERA NAGUSIA	Lan-baliabideen eskaintza
ENPLEGURAKO ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUAK	- Enplegu arrunta
HARREMANETARAKO DATUAK	
HARREMANETARAKO PERTSONA	Pedro del Olmo (presidentea)
HELBIDEA	Larrezabaleta auzoa 15, 1
TELEFONOA	634 25 46 70
EMAILA	arraztalo@gmail.com
WEBGUNEA	http://www.arraztaloelkartea.wordpress.com
ERAKUNDEAREN DESKRIBAPEN LABURRA	Arraztalo Elkartea gaixotasun psikikoak dituzten pertsonen eta haien sendiei laguntzeko sortu zen. Elkartearen xedea da gaixotasun mentalen bat duten pertsonak gizarteratzen eta laneratzen laguntzeko askotariko jarduerak sustatzea eta bultzatzea, betiere Oiartzunen bizi badira. Laneratzeko bidean sakontzeko, elkartearen helburu nagusietako bat zera da, enplegu-zentro berezi bat sortzea, ikuspegi juridikotik. Gaur egun, BARATZE EKOLOGIKOEN proiektua da elkartek kudeatzen duen jarduerarik garrantzitsuenetako bat.

SEGI HIRU	
ERAKUNDEAREN SAILKAPENA	
KOKAPENA	Donostia (Gipuzkoa)
KOLEKTIBOA	Gaixotasun mentala duten pertsonak
ERAKUNDE MOTA	Irabazi-asmorik gabeko erakundea
TITULARTASUNA	Pribatua
JARDUERA NAGUSIA	Lan-baliabideen eskaintza
ENPLEGURAKO ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUAK	Enplegu babestua: Enplegu-zentro berezia
HARREMANETARAKO DATUAK	
HARREMANETARAKO PERTSONA	
HELBIDEA	Ubarburu pasealekua (27 industrialdea), 32
TELEFONOA	943 460 977
EMAILA	segihiru@segihiru.com
WEBGUNEA	www.segihiru.com
ERAKUNDEAREN DESKRIBAPEN LABURRA	Segi Hiru enpresa soziala da, irabazi-asmorik gabea, eta 2001ean sortu zen, gure familia-inguruneak premia bat zuela hauteman zenean. Erakundearen helburua enplegua sortzea da gaixotasun mentalaren ondorioz desgaitasuna duten pertsonen kolektiborako, eta gizarte-onura lortu nahi dute, halaber, horren ondorioz. Erakundeak honako zerbitzu hauetan jarduten du: hondakin arriskutsuen kudeaketan, dokumentuen suntsiketan, panteoien garbiketa- eta mantentze-lanetan, errauts-kutxatiletan eta artxiboen kudeaketan.

B) Desgaitasunean espezializatutako erakundeak

RANZARI LANTEGIA	
ERAKUNDEAREN SAILKAPENA	
KOKAPENA	Santurtzi (Bizkaia)
KOLEKTIBOA	Desgaitasuna duten pertsonak
ERAKUNDE MOTA	Irabazi-asmorik gabeko erakundea
TITULARTASUNA	Publikoa
JARDUERA NAGUSIA	Lan-baliabideen eskaintza
ENPLEGURAKO ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUAK	Lanbide-zerbitzua Enplegu babestua: Enplegu-zentro berezia
HARREMANETARAKO DATUAK	
HARREMANETARAKO PERTSONA	Pilar Molano Armendariz (psikologoa)
HELBIDEA	Kabiezes auzoa, z.g.
TELEFONOA	944 61 04 66
EMAILA	ranzari@ranzari.com
ERAKUNDEAREN DESKRIBAPEN LABURRA	Ranzari Lantegia gizarte-ekimeneko toki-erakunde bat da, eta Santurtziko Kabiezes auzoan dago. 1987an sortu zuten Santurtziko eta Portugaleteko Udalek, desgaitasun psikikoa duten pertsonak lanean eta gizartean txertatzeko (nagusiki udalerrri horietakoak). Ranzari Lantegia Mankomunitateak lana baliatzen du desgaitasun psikikoa duten pertsonak gizarteratzeko baliabide nagusi gisa (dela desgaitasun intelektuala, dela gaixotasun mentala dutenak), enplegarritasun-arazo handiagoak eta lan-merkatu arruntean sartzeko zailtasun handiagoak izaten dituzten aldetik. Erakundeak jarduera eta zerbitzu ugari kudeatzen dituen, dibertsifikatzen joan dira, errealitate ekonomikoa aldatzen eta kolektiboaren enplegu-eskaria areagotzen joan den heinean: koadernatzea eta arte grafikoen manipulazioa, garbitegi eta garbiketa industrialak, lorezaintza, dokumentuak digitalizatzea eta barneko zerbitzuak (sukaldea, mantentze-lanak, garraioa, telefonia edo administrazioa).

LANTEGI BATUAK	
ERAKUNDEAREN SAILKAPENA	
KOKAPENA	Loiu (Bizkaia)
KOLEKTIBOA	Desgaitasuna duten pertsonak
ERAKUNDE MOTA	Irabazi-asmorik gabeko erakundea
TITULARTASUNA	Pribatua
JARDUERA NAGUSIA	Lan-baliabideen eskaintza
ENPLEGURAKO ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUAK	Informazioa eta orientazioa Prestakuntza-zerbitzua Lanbide-zerbitzua Enplegu babestua: Enplegu-zentro berezia Enplegu arrunta: Enplegu lagundua
HARREMANETARAKO DATUAK	
HARREMANETARAKO PERTSONA	Oscar Sánchez (Pertsonen eta Garapenaren zuzendaria)
HELBIDEA	Txorierrri Etorbidea 12 (egoitza nagusia)
TELEFONOA	944 53 59 99
EMAILA	oscarsanchez@lantegi.com
WEBGUNEA	http://www.lantegi.com/eu/
ERAKUNDEAREN DESKRIBAPEN LABURRA	Irabazi-asmorik gabeko erakunde horrek lan-aukera egokituak sortzen dizkie desgaitasuna –batez ere intelektuala– duten pertsonen –bereiziki, Bizkaikoei–, ahalik eta garapen-maila eta bizitza-kalitate handiena lor dezaten. Bizkaiko enplegu babestuaren esparruan, dimentsiorik handieneko enpresa-ekimena da. Gaur egun, desgaitasun intelektuala, fisikoa, sentzoriala eta nahasmendu mentala duten 2.500 laguni baino gehiagori ematen dizkiete lan-aukerak, industria- eta zerbitzu-jardueren bidez. Guztira 21 lan-zentro eta bederatzi zerbitzu-ekipamendu dituzte, Bizkaia osoan banaturik.

GALLARRETA LANTEGIAK	
ERAKUNDEAREN SAILKAPENA	
KOKAPENA	Abanto-Zierbena (Bizkaia)
KOLEKTIBOA	Desgaitasuna duten pertsonak
ERAKUNDE MOTA	Irabazi-asmorik gabeko erakundea
TITULARTASUNA	Publikoa
JARDUERA NAGUSIA	Lan-baliabideen eskaintza
ENPLEGURAKO ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUAK	Lanbide-zerbitzua Enplegu babestua: Enplegu-zentro berezia
HARREMANETARAKO DATUAK	
HARREMANETARAKO PERTSONA	Miren Ron (psikologoa eta dibertsitate funtzionala duten pertsonen arduraduna)
HELBIDEA	Abanto auzoa 12
TELEFONOA	94 636 24 78
EMAILA	miren@gallarreta.net
WEBGUNEA	http://www.gallarreta.net/
ERAKUNDEAREN DESKRIBAPEN LABURRA	Gallarreta lan babestuko zentro bat da, eta Abanto-Zierbenan dago. 1987an sortu zuten, meatze eremuko lau udalen artean (Abanto-Zierbena, Muskiz, Ortuella eta Trapagaran). Haren egitekoa da lan-aukera egonkorrak eta normalizatuak ematea desgaitasuna duten pertsoneri. Erakunde horrek lanerako zentro bat eta enplegu-zentro berezi bat ditu, honako sektore hauetan jarduerak gauzatzeko: dokumentuen kudeaketa, garbiketa-zerbitzuak, ekoizpena eta zerbitzu logistikoak, publizitate-banaketa, arotzeria eta markoztatzea, eta ingurumen-zerbitzuak.

URBEGI FUNDAZIOA	
ERAKUNDEAREN SAILKAPENA	
KOKAPENA	Balmaseda (Bizkaia)
KOLEKTIBOA	Desgaitasuna duten pertsonak
ERAKUNDE MOTA	Irabazi-asmorik gabeko erakundea
TITULARTASUNA	Pribatua
JARDUERA NAGUSIA	Lan-baliabideen eskaintza
ENPLEGURAKO ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUAK	Informazioa eta orientazioa Prestakuntza-zerbitzua Enplegu babestua
HARREMANETARAKO DATUAK	
HARREMANETARAKO PERTSONA	
HELBIDEA	Paramo industrialdea, B-7 pabilioia (egoitza nagusia)
TELEFONOA	946 801 934
EMAILA	info@urbegi.com
WEBGUNEA	http://urbegi.com/fundacion-urbegi/
ERAKUNDEAREN DESKRIBAPEN LABURRA	Urbegi Fundazioaren helburua da kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen laneratzeko laguntzeko ekintzak sustatzea, bultzatzea eta zabaltzea. Helburu zabal horren barruan, hauek dira fundazioaren lehentasunezko jarduerak-ildoak: Desgaitasuna duten pertsonen edo bestelako arrazoiengatik kalteberatasun-egoeran daudenei lan-orientazioa eskaintzea, enpresei politika inklusiboak garatzen laguntzea, enplegarritasun-baldintzak hobetzeko prestakuntza, estrategia eta politika inklusiboak diseinatzeko eta abiarazteko laguntza, eta garapen sozioekonomikoko proiektuak definitzea eta martxan jartzea.

BIDAIDEAK	
ERAKUNDEAREN SAILKAPENA	
KOKAPENA	Bilbo (Bizkaia)
KOLEKTIBOA	Desgaitasuna duten pertsonak
ERAKUNDE MOTA	Irabazi-asmorik gabeko erakundea
TITULARTASUNA	Pribatua
JARDUERA NAGUSIA	Lan-baliabideen eskaintza
ENPLEGURAKO ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUAK	Informazioa eta orientazioa (Lan Integrazioko eta Aholkularitzako Zentroa)
HARREMANETARAKO DATUAK	
HARREMANETARAKO PERTSONA	
HELBIDEA	Agirre Lehendakaria, 5
TELEFONOA	94 476 62 00
EMAILA	info@bidaideak.org
WEBGUNEA	www.bidaideak.org
ERAKUNDEAREN DESKRIBAPEN LABURRA	BIDAIDEAK aniztasun funtzionala duten pertsonen Euskadiko erakundea da, irabazi-asmorik gabea, eta independentea administrazio publikoetatik eta bestelako erakunde pribatu edo paraestataletatik. Erakundearen egitekoa minusbaliotasunak sortzen dituzten elementuak desagerraraztea da, urritasunak dituzten pertsonen gizarte-partaidetza berdintasunezkoa izan dadin galarazten duten aldetik. Gainera, saiatzen dira erreferentzia-kolektiboa osatzen duten pertsonen bizi-kalitatea etengabe hobetzen eta gizarte bidezkoagoa, barneratzaileagoa eta solidarioagoa lortzeko bidean proposamenak egiten dituen gizarte-eragile izaten. Enpleguari dagokionez, erakundeak Lan-arloko Integrazio eta Aholkularitza Zentroa (CIAL) du: enplegurako orientazio profesionala ez ezik, autoenplegurako laguntza ere eskaintzen du, desgaitasuna duten pertsonen lanbide-aukerak hobetzeko.

USOA LANTEGIA	
ERAKUNDEAREN SAILKAPENA	
KOKAPENA	Barakaldo (Bizkaia)
KOLEKTIBOA	Desgaitasuna duten pertsonak
ERAKUNDE MOTA	Irabazi-asmorik gabeko erakundea
TITULARTASUNA	Publikoa
JARDUERA NAGUSIA	Lan-baliabideen eskaintza
ENPLEGURAKO ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUAK	Lanbide-zerbitzua Enplegu babestua: Enplegu-zentro berezia
HARREMANETARAKO DATUAK	
HARREMANETARAKO PERTSONA	Amaia Elorza (Giza Baliabideetako arduraduna)
HELBIDEA	Zumalakarregi, 10
TELEFONOA	944900211
EMAILA	amaia@usoa.es / usoa@usoa.es
WEBGUNEA	http://usoa.es/
ERAKUNDEAREN DESKRIBAPEN LABURRA	USOA lan babestuko zentro bat da, desgaitasuna duten pertsonen lanerako aukera egonkorra eta normalizatuak eskaintzeko jomuga duena, aukera horiek garapen soziala ere ahalbidetzen dutela. Barakaldoko Udalak sortu zuen orain 30 urte baino gehiago, eta mota guztietako desgaitasunak – intelektuala, fisikoa edo/eta sentzoriala – eta nahasmendu mentalak dituzten pertsonak artatzen ditu. Lantoki mistoa da: enplegu-zentro berezia eta lanerako zentroa. Besteak beste, honako jarduerak hauek aritzen da: jostuntza, laneko arropa prestatzea, dokumentuak suntsitzea, dokumentu konfidentzialak digitalizatzea, lorategien mantentze-lanak, publizitate zuzena, azpikontratatuak ekoizpen-prozesuak eta garbiketa-zerbitzuak.

ENTREMANOS	
ERAKUNDEAREN SAILKAPENA	
KOKAPENA	Barakaldo (Bizkaia)
KOLEKTIBOA	Desgaitasuna duten pertsonak
ERAKUNDE MOTA	Irabazi-asmorik gabeko erakundea
TITULARTASUNA	Publikoa
JARDUERA NAGUSIA	Lan-baliabideen eskaintza
ENPLEGURAKO ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUAK	Informazioa eta orientazioa Prestakuntza-zerbitzua Lanbide-zerbitzua Enplegu babestua: Enplegu-zentro berezia Enplegu arrunta: Enplegu lagundua
HARREMANETARAKO DATUAK	
HARREMANETARAKO PERTSONA	Iban Huarte Esteban (zuzendaria)
HELBIDEA	Aita Patxi plaza, 8
TELEFONOA	944754417
EMAILA	iban@entremanos.org
WEBGUNEA	http://www.entremanos.org/
ERAKUNDEAREN DESKRIBAPEN LABURRA	ENTREMANOS 2001ean sortu zen, APNABIk sustatuta eta lagunduta, nortasun propioko elkarte gisa, eta Bizkaian desgaitasuna duten pertsonentzat –bereziki, Bizkaian autismoaren espektroko nahasmendua dutenentzat– lan-aukerak sortzeko helburua du. Elkaratearen egitekoa desgaitasuna duten pertsonen –bereziki autismoaren espektroko nahasmendua dutenen– bizi-kalitatea hobetzea da, gizarteratzearen eta laneratzearen bidez eta erantzun indibidualizatua eskainita.

BIZGORRE	
ERAKUNDEAREN SAILKAPENA	
KOKAPENA	Mungia (Bizkaia)
KOLEKTIBOA	Desgaitasuna duten pertsonak
ERAKUNDE MOTA	Pertsona bakarreko sozietate mugatua (SLU)
TITULARTASUNA	Pribatua
JARDUERA NAGUSIA	Lan-baliabideen eskaintza
ENPLEGURAKO ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUAK	Enplegu babestua: Enplegu-zentro berezia
HARREMANETARAKO DATUAK	
HARREMANETARAKO PERTSONA	
HELBIDEA	Aritz kalea 63
TELEFONOA	94 674 37 13
EMAILA	bizgorre@bizgorre.com
WEBGUNEA	http://www.bizgorre.com/
ERAKUNDEAREN DESKRIBAPEN LABURRA	BIZGORRE, SLU. Enplegu-zentro berezi hau 1989an sortu zen, Bizkaiko gorren kolektiboa laneratzeko proiektu gisa, COORVISOR Bizkaiko Gorren Koordinakundearen ekimenari eta babesari esker. Haren jardueraren barruan biltzen dira, adibidez, txartel elektronikoak muntatzeko, produktu berriak diseinatzeko eta osagaiak eta zirkuitu inprimatuak kudeatzeko zerbitzuak.

GRUPO ILUNION	
ERAKUNDEAREN SAILKAPENA	
KOKAPENA	Gasteiz (Araba), Bilbo, Erandio, Lemoa eta Galdakao (Bizkaia) Donostia (Gipuzkoa)
KOLEKTIBOA	Desgaitasuna duten pertsonak
ERAKUNDE MOTA	Enpresa-taldea
TITULARTASUNA	Pribatua
JARDUERA NAGUSIA	Lan-baliabideen eskaintza
ENPLEGURAKO ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUAK	Enplegu babestua: Enplegu-zentro berezia
HARREMANETARAKO DATUAK	
HARREMANETARAKO PERTSONA	
HELBIDEA	Pérez Galdós 11 (Bilbo) Axpeko Erribera 11, D1, 101 (Erandio) Poxueta industrialdea 16F (Lemoa) Labega z.g. (Galdakao – Galdakaoko ospitalea) Jose Atxotegi z.g. (Gasteiz, Txagorritxu ospitalea) Begiristain Doktorearen pasealekua z.g. (Donostia – Arantzazu ospitalea)
TELEFONOA	902 90 41 11
EMAILA	contacto@ilunion.com
WEBGUNEA	http://www.ilunion.com/eu
ERAKUNDEAREN DESKRIBAPEN LABURRA	ONCEren eta haren fundazioaren enpresa-elkartea da ILUNION, eta liderra da Espainian desgaitasuna duten pertsonak laneratzen. Haren egitekoa enpresa-jarduera berritzaileak garatzea da, desgaitasuna duten pertsonak laneratzen laguntzeko, betiere balio ekonomikoen eta sozialen arteko orekari eutsita. Enpresa-talde horrek hiru lurralde historikoetan ditu enplegu-zentro bereziak.

ADECCO FUNDAZIOA	
ERAKUNDEAREN SAILKAPENA	
KOKAPENA	Bilbo (Bizkaia) eta Donostia (Gipuzkoa)
KOLEKTIBOA	Desgaitasuna duten pertsonak
ERAKUNDE MOTA	Irabazi-asmorik gabeko erakundea
TITULARTASUNA	Pribatua
JARDUERA NAGUSIA	Lan-baliabideen eskaintza
ENPLEGURAKO ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUAK	Informazioa eta orientazioa Prestakuntza-zerbitzua
HARREMANETARAKO DATUAK	
HARREMANETARAKO PERTSONA	Nagore Ortega (aholkularia)
HELBIDEA	Berastegui 5, 1 ezkerre (Bilbo) Bergara 23, 1 erdia-eskuina (Donostia)
TELEFONOA	94 479 22 70 (Bilbo) / 643 44 57 80 (Donostia)
EMAILA	nagore.ortega@adecco.com
WEBGUNEA	http://www.fundacionadecco.es/FundacionAdecco/Historia.aspx?Modo=Normal
ERAKUNDEAREN DESKRIBAPEN LABURRA	Adecco Fundazioa irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta hainbat arrazoi direla eta, enplegua topatzeko zailtasun handiak dituzten pertsonak –hala nola desgaitasuna duten pertsonak– lan-munduan sartzeko apustua egiten du. 1999an sortu zen, Adecco Fundazioak bere gain hartutako gizarte-erantzukizunaren emaitza gisa.

INTEGRA	
ERAKUNDEAREN SAILKAPENA	
KOKAPENA	Ortuella (Bizkaia) eta Donostia (Gipuzkoa)
KOLEKTIBOA	Desgaitasuna duten pertsonak
ERAKUNDE MOTA	Enpresa-taldea
TITULARTASUNA	Pribatua
JARDUERA NAGUSIA	Lan-baliabideen eskaintza
ENPLEGURAKO ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUAK	Enplegu babestua: Enplegu-zentro berezia
HARREMANETARAKO DATUAK	
HARREMANETARAKO PERTSONA	Sarai Caneda (Babes-teknikaria Bilbon)
HELBIDEA	Granada industrialdea, 3L (Bilbo) Portuete 47, behe (Donostia)
TELEFONOA	902 106 237 (Bizkaia) / 943 225 291 (Gipuzkoa)
EMAILA	scaneda@integracee.es (Bilbo)
WEBGUNEAK	http://www.integracee.es/es/
ERAKUNDEAREN DESKRIBAPEN LABURRA	INTEGRA CEE enplegu-zentro berezia da, CLECE Taldeko. Desgaitasun fisikoa, psikikoa edo sensoriala duten pertsonak lan-merkatuan txertatzeko sortu zen, eta bi esparrutan egiten du lan: batetik, kolektibo hori laneratzean, bestetik, gizartea sentsibilizatzean. Desgaitasuna duten pertsonak lan-merkatu arruntera igaro daitezke sustatzeko egiteko du, euren lan-jarduna enpresa batean garatu ahal izan dezaten. Erakundeak Espainia osoan egiten du lan, eta Euskadin bi ordezkari ditu: Bilbon bat eta Donostian beste bat.

GRUPO SIFU	
ERAKUNDEAREN SAILKAPENA	
KOKAPENA	Leioa (Bizkaia)
KOLEKTIBOA	Desgaitasuna duten pertsonak
ERAKUNDE MOTA	Enpresa-taldea
TITULARTASUNA	Pribatua
JARDUERA NAGUSIA	Lan-baliabideen eskaintza
ENPLEGURAKO ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUAK	Enplegu babestua: lan-eremuak
HARREMANETARAKO DATUAK	
HARREMANETARAKO PERTSONA	María Jiménez (Babes Unitateko teknikaria)
HELBIDEA	Langileria 190
TELEFONOA	670371140
EMAILA	mjimnez@gruposifu.com
WEBGUNEA	http://www.gruposifu.com/
ERAKUNDEAREN DESKRIBAPEN LABURRA	Grupo SIFUren enplegu zentro-bereziak konpainia batean azpikontrata daitezkeen zerbitzu guztiak ematen ditu, bere jarduera nagusian jar dezan arreta. Soluzio integralak eta malguak eskaintzen dizkie enpresei, besteak beste zerbitzu osagarrietan, garbiketa espezializatuan, ingurumen-zerbitzuetan, aholkularitzan eta horniduren kudeaketan. Erakundeak Espainiako estatu osoan dihardu, baina badu ordezkaritza bat Bizkaian, eta hiru lurralde historikoetan gauzatzen du bere jarduna.

INDESA	
ERAKUNDEAREN SAILKAPENA	
KOKAPENA	Gasteiz (Araba)
KOLEKTIBOA	Desgaitasuna duten pertsonak
ERAKUNDE MOTA	Irabazi-asmorik gabeko erakundea
TITULARTASUNA	Publikoa
JARDUERA NAGUSIA	Lan-baliabideen eskaintza
ENPLEGURAKO ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUAK	Informazioa eta orientazioa Enplegu babestua: Enplegu-zentro berezia
HARREMANETARAKO DATUAK	
HARREMANETARAKO PERTSONA	Teodoro Alonso Ramírez de la Peciña (psikologoa)
HELBIDEA	Álava jenerala 10, 5. (Egoitza nagusia)
TELEFONOA	945 27 52 00
EMAILA	talonsoramirez@alava.net
WEBGUNEAK	http://www.araba.eus/cs/Satellite?c=IFBS_Programa_FA&cid=500002134109&pageid=500002130864&pagename=IFBS%2FIFBS_Programa_FA%2FIFBS_programa
ERAKUNDEAREN DESKRIBAPEN LABURRA	INDESA Integración y Desarrollo enplegu-zentro berezi bat da, eta desgaitasuna duten pertsonentzako lan-ekimenak –titulartasun publikokoak– biltzen ditu. Lan-zentro honetan, ekoizpen-jarduerak gauzatzen dira eta erregularitasunez parte hartzen da lan-merkatuko eragiketetan. Askotariko jarduerak kudeatzen ditu erakundeak, hala nola industria-garbiketa, lorezaintza eta baratzezaintza, sukaldaritza industrial, mekanizatuak eta muntaketa-lanak.

GUREAK TALDEA	
ERAKUNDEAREN SAILKAPENA	
KOKAPENA	Donostia (Gipuzkoa)
KOLEKTIBOA	Desgaitasuna duten pertsonak
ERAKUNDE MOTA	Enpresa-taldea
TITULARTASUNA	Mistoa
JARDUERA NAGUSIA	Lan-baliabideen eskaintza
ENPLEGURAKO ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUAK	Informazioa eta orientazioa Prestakuntza-zerbitzua Lanbide-zerbitzua Enplegu babestua: Enplegu-zentro berezia Enplegu arrunta: Enplegu lagundua
HARREMANETARAKO DATUAK	
HARREMANETARAKO PERTSONA	Esther Balda Larrañaga
HELBIDEA	Ilarra bidea 4 (egoitza nagusia)
TELEFONOA	943 00 08 00
EMAILA	gureakitinerary@gureak.com
WEBGUNEA	https://www.gureak.com/eu/
ERAKUNDEAREN DESKRIBAPEN LABURRA	GUREAK Euskadiko enpresa-talde bat da, eta desgaitasuna duten pertsonetara egokitutako lan-aukerak sortzen eta kudeatzen ditu, eta adimen-urritasuna duten gipuzkoarrak dira onuradun nagusiak. GUREAK talde sendoa eta dibertsifikatua da eta industrian, zerbitzuetan eta marketinean du presentzia bereziki.

GUREAK ARABA	
ERAKUNDEAREN SAILKAPENA	
KOKAPENA	Gasteiz (Araba)
KOLEKTIBOA	Desgaitasuna duten pertsonak
ERAKUNDE MOTA	Sozietate Mugatua
TITULARTASUNA	Mistoa
JARDUERA NAGUSIA	Lan-baliabideen eskaintza
ENPLEGURAKO ESKAINTZE DITUEN ZERBITZUAK	Informazioa eta orientazioa Enplegu babestua: Enplegu-zentro berezia Enplegu arrunta: Enplegu lagundua
HARREMANETARAKO DATUAK	
HARREMANETARAKO PERTSONA	
HELBIDEA	Oto hiribidea 50 (egoitza nagusia)
TELEFONOA	945218142
EMAILA	gureakitinerary@gureak.com
WEBGUNEA	http://www.gureak.com/eu/
ERAKUNDEAREN DESKRIBAPEN LABURRA	

KATEA LEGAIK	
ERAKUNDEAREN SAILKAPENA	
KOKAPENA	Hernani (Gipuzkoa)
KOLEKTIBOA	Desgaitasuna duten pertsonak
